



## NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO KONPETENTZIA

Marko teorikoa





Hezkuntza Berrizatzea



Hezkuntza ikuskaritza



# **NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO KONPETENTZIA**

|      |  |    |
|------|--|----|
|      | Aurkibidea   | 1  |
| 1.   | Konpetenziaren justifikazioa.....  | 3  |
| 1.1. | Oinarriak eta aurrekariak.....   | 3  |
| 1.2. | Konpetenziaren gakoak.....   | 6  |
| 1.3. | Zenbait erronka.....   | 10 |
| 2.   | Konpetenziaren deskribapena.....   | 12 |
| 3.   | Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetenziaren dimentsioak.....                 | 16 |
| 4.   | Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa.....                              | 19 |
| 4.1. | Lehen Hezkuntzako 4. mailako azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa..... | 19 |
| 4.2. | DBHko 2. mailako azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa.....             | 29 |



## 1. Konpetentziaren justifikazioa

**«Pertsona bat autonomoa da bere buruari arau propioak jartzen dizkionean; besteek diotenaren arabera jardun ordez, pertsona orok, nahi ala ez nahi, bete beharko lituzkeen arau jakin batzuen arabera jardun duenean».** Kant.

Esparru teoriko honetan norberaren autonomiarako eta ekimen pertsonalerako konpetentzia aurkeztuko dugu. Era berean, konpetentzia hori garatzeak duen garrantzia erakutsiko dugu, gure ikasleek beren ahalmen guztiak garatzeko eta XXI. mendeko gizartearen erronkei baldintza onenetan aurre egiteko ezinbestekoa baita.

Autonomia gure kaxa jardutea ahalbidetzen digun giza ezaugarrietako bat da, eta, hala, gizakia bere bizitzaren protagonista errepikaezina bilakatzen du.

Konpetentzia horrek dakar «banakako edo taldeko ekintzak eta proiektuak imajinatzeko, ekiteko, garatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, sormenez, konfiantzaz, erantzukizunez eta zentzu kritikoz jokotuta»<sup>1</sup>. Hortaz, gainerako oinarriko konpetentziak bezala, pertsona bakoitzaren prestakuntza integralari erabat lotuta dago.

Konplexua izateaz gain, aldaketa gehien jasan dituen konpetentzia da autonomia, ez bakarrik definizioari dagokionez, baita hura osatzen duten curriculum elementuei dagokienez ere, dokumentu honetan azalduko dugun bezalaxe.

### 1.1. Oinarriak eta aurrekariak

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia Europako hezkuntza-sistemen curriculumaren barruko oinarriko konpetentzietako bat da, nahiz eta herriaren arabera izendapena aldatu.

Hura barne hartzeko arrazoia hezkuntza integralari egiten dion ekarpena da. Hezkuntza integralaren egitekoa ikasleek bizitzan zehar beharko dituzten gaitasunak garatzea da, maila pertsonalean, profesionalean eta sozialean norberaren errealizazioa lor dezaten; horrela bada, norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia oinarriko konpetentzien artean oinarrikoenetako bat da.

XX. mendeko 90eko hamarkadaren amaieran, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) ikerketa bat egin zuen hamabi herrialde kidetan,

<sup>1</sup> 1513/2006 eta 1631/2006 errege dekretuen I. eranskina eta urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren 3. eranskina (2007/11/13ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarriko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duen martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak aldatua.

bizitza betea izateko eta gizartearen funtzionamendu egokirako beharrezkoak ziren funtsezko konpetentziak zehazteko helburuarekin. 2001ean, emaitzak DeSeCo txostenean<sup>2</sup> (Konpetentzien zehaztapena eta hautaketa) argitaratu zituen. Bertan, hiru konpetentzia-kategoria ezarri ziren, modu autonomoan jardutea ahalbidetzen dutenak barne. Katategoria horretakoak dira jokabideak eta erabakimena ulertzeko, bizitza-planak eta proiektu pertsonalak sortu eta kudeatzeko eta norberaren eskubideak eta interesak defendatzeko behar diren konpetentziak.

Era berean, Lisboako Kontseiluak (2000) etengabeko ikaskuntzaren oinarritzko kualifikazioak finkatu ahal izateko erreferentziazko esparrua zehaztu zuen, besteak beste, informazioaren teknologiak, atzerriko hizkuntzak, kultura teknologikoa, enpresa-espirtua eta trebetasun sozialak barne hartzen zituena. Hala, esparru horretan enpresa-espirtua aipatzen da, baina berritzeko eta aldaketetara, plangintzara eta proiektu-kudeaketara egokitzeko ahalmena den aldetik.

Ondoren, Stockholmeko Kontseiluak (2001) eta Bartzelonako Kontseiluak (2002) Europako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemek bete beharreko xedeak ezarri zituzten, eta Hezkuntza eta Prestakuntza 2010 deitutako lan-programa zehaztu zuten. Programaren euskarri gisa, *Bizialdi osoko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziak*<sup>3</sup> txostena egin zen 2004an. Txosten horretan, Europar Batasunak funtsezko zortzi konpetentziak xehatu zituen, tartean, espirtu ekintzailea; alegia, «*ideiak ekintza bihurtzeko pertsona orok duen gaitasuna. Sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuak hartzearekin zerikusia du, bai eta, helburuak betetze aldera, proiektuen plangintza eta kudeaketa egiteko gaitasunarekin ere*». Definizio hori ikusita, argi dago zergatik irizten zaion espirtu ekintzaileari norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziaren aurrekari.

Espanian, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Europar Batasunak egindako proposamena jaso zuen Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan<sup>4</sup>(HLO) eta horren ondoriozko gutxieneko irakaskuntzak ezartzeari buruzko errege dekretuetan<sup>5</sup> (2006). Horietan, zortzi oinarritzko konpetentzia zehaztu ziren, norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia, besteak beste.

HLOren ildoek jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum<sup>6</sup> berriak (2007) ikasleek izan beharreko gaitasunei erreparatzen die:

---

<sup>2</sup> ELGAren DeSeCo txostena, *La definición y selección de competencias clave*, jatorrian ingelesez argitaratu zen (*“Defining and selecting key competencies”*) 2001ean (<[www.oecd.org/ed/statistics/deseeco](http://www.oecd.org/ed/statistics/deseeco)>). Laburpen exekutiboa gaztelaniaz kontsultatu nahi izanez gero: <http://www.deseco.admin.ch/bfs/deseeco/en/index/03/02.parsys.78532.downloadList.94248.DownloadFile.tmp/2005.dsceexecutivesummary.sp.pdf>.

<sup>3</sup> EUROPAKO BATZORDEA, HEZKUNTZA ETA KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA: *Competencias clave para un aprendizaje permanente. Un marco de referencia europeo*, 2004ko azaroa. Gaztelaniaz: [http://ec.europa.eu/dgs/education\\_culture/publ/pdf/ll-learning/keycomp\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/dgs/education_culture/publ/pdf/ll-learning/keycomp_es.pdf).

<sup>4</sup> 2006ko maiatzaren 4ko BOE, 106. zk.

<sup>5</sup> 1513/06 eta 1631/06 errege dekretuen I. eranskina.

<sup>6</sup> Urriaren 16ko 175/2007 DEKRETUA (EHAA, 2007/11/13), zeinaren III. eranskina 97/2010 DEKRETUAK aldatzen baitu. (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43->

hezkuntza integralaren (oinarrizkoa nahiz etengabekoa) erreferentzia-ardatz nagusi gisa sei konpetentzia orokor zehaztu dira, eta zortzi oinarrizko konpetentzia. Hala bada, «*Dekretu honek jakintzaren hainbat alor eta gaitan araututako curriculum-edukiak ikasleen zerbitzura izango dira*». Halaber, zortzi oinarrizko konpetentziak eskuratzea eta garatzea xede duen hezkuntza-proposamenak barne hartzen du norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia.

Autonomoa izaten ikasteak dakar maila pertsonal, profesional eta sozialean gero eta konplexuagoa den mundu batean moldatzen ikastea. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzako planteamendu berriari jarraiki, horretarako, ezagutza, trebetasun, abilezia (arazoei aurre egiteko, erabakiak hartzeko, taldean lan egiteko, adib.), jarrera eta balio (jarraikitasuna, elkartasuna, sormena, adib.) sorta bat garatu behar dira. Horiek ez dira berez sortzen, ez eta informazioa edo ezagutza eskuratzeagatik ere. A. Escamillak dioen bezala, «*konplexutasun horrek lan ordenatua, planifikatua, mailakatua eta kontsekuentea eskatzen du eskolatze-aldiaren lehenengo faseetatik. Lan hori familia-ekintzarekin osatu behar da (bai eta gizartearen eskakizunak eta aukerak izan beharko liratekeenekin ere)*»<sup>7</sup>.

---

2459/es/contenidos/informacion/dif10\_curriculum\_berria/es\_5495/adjuntos/iii\_eranskina\_oinarrizko\_gait\_asunak.pdf).

<sup>7</sup> ESCAMILLA, A.: *Las competencias básicas. Claves y propuestas para su desarrollo en los centros*, Graó, Bartzelona, 2008, 113. or.

## 1.2. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetenziaren gakoak

Jarraian, kontuan hartu beharreko **sei gako ideia** aurkeztuko ditugu kompetentzia deskribatzen hasi aurretik, horren konplexutasuna hobeto uler dezazuen:



### 1. Bi termino asimetrikoz osatutako kompetentzia

Puigek eta Martínek<sup>8</sup> adierazten duten moduan, kompetentzia osatzen duten bi terminoek, **autonomiak** eta **ekimenak**, ez dute garrantzi berbera: «*lehenengo kontzeptua (autonomia) askoz zabalagoa da, eta bigarrena barne hartzen du. Autonomiaren esparru-kontzeptuaren barruan, hura osatzen duten alderdietako bat nabarmentzea bezala da*».

<sup>8</sup> PUIG, J. M.; MARTÍN, X.: *Competencia en autonomía e iniciativa personal*, Alianza Editorial, Madril, 13. or.



Ekimena terminoa zehaztean, duen garrantzia nabarmendu nahi da, hizpide dugun konpetentziaren funtsezko alderdietako bat ideiak ekintza bihurtzeko ahalmena baita. Ekimena izatea da xedeak izatea eta proiektuak planifikatzea eta gauzatzea. Pertsonala izateak norberarena dela esan nahi du eta, beraz, norberaren esku dagoela. Ekimen pertsonala norberaren ekintzan konfiantza izatea da. Hori lortze aldera, nork bere kabuz gogoeta egin eta erantzukizuna hartu behar du esparru pertsonalean, sozialean eta lanekoan. Horri esker, gizabanako bakoitza gero eta autonomoagoa izango da.

## 2. Izaera holistikoa eta sistemikoa duen konpetentzia

Bi terminook zera adierazten dute, batetik, autonomia eta ekimena gainerako oinarrizko konpetentzietan daudela, eta, bestetik, beste konpetentzien hainbat funtsezko alderdi biltzen dituztela. Hau da, ezagutza, ahalmen, emozio, jarrera eta balio multzo bat garatzean datza, zeinak ezin baitira modu isolatuan edo bereizian ulertu, baizik eta elkarren eragina jasotzen duten zati gisa.

*«Konpetentzia-esparru horretan, ezinbestekoa da gizabanakoek gogoeta eginez pentsatzea eta jardutea. Gogoeta egitea ez da soilik ohiko moduan formula edo metodo bat aplikatzea egoera bati aurre egiteko; aldaketara egokitzeko, esperientzietatik ikasteko eta jarrera kritikoa baliatuz pentsatzeko eta jarduteko ahalmena izatea da»<sup>9</sup>.*

## 3. Ikasten ikasteko konpetentziari oso lotuta dagoen konpetentzia

Badira konpetentzia horren garapenari lotutako hainbat alderdi, zortzi oinarrizko konpetentziei aplikatu dakizkiekeenak: sormena, ekiteko ahalmena, pentsamendu kritikoa, arazoak konpontzea, erabakiak hartzea, arriskuak balioestea eta sentimenduak kontrolatzea. Horregatik, DeSeCo txostenak diotenaren arabera, baieztatu daiteke *«norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia ondo garatzeko, beharrezkoa dela gainerako konpetentziak baliatzea, hain zuzen pentsatzen ikastea, komunikatzen jakitea, IKTak erabiltzen jakitea, harremanetan jartzen jakitea, norbera den bezalakoa izaten jakitea eta ekimena izatea oinarrian dutenak»<sup>10</sup>.*

Baina norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziak ikasten ikasteko konpetentziari du loturarik estuena, ez interes-esparru komunak partekatzeagatik bakarrik, baita garatu ahal izateko elkarren beharra dutelako ere (osagarriak dira).

<sup>9</sup> ELGA: DeSeCo txostena, *La definición y selección de competencias clave*, laburpen exekutiboa, 2001 (<<http://www.deseco.admin.ch/bfs/deseco/en/index/03/02.parsys.78532.downloadList.94248.DownloadFile.tmp/2005.dscexecutivesummary.sp.pdf>>), 4. or.

<sup>10</sup> GARAGORRI, X.: «Orientaciones para desarrollar la iniciativa y el espíritu emprendedor» in *Aula de Innovación Educativa*, 182 (2009), 13-16. or.

Izan ere, ikasten ikasteko, lehenik eta behin, ikasketa-prozesuari ekiteko gaitasunak eduki behar ditu gizabanakoak, eta modu autonomoan ikasten jarraitzeko gai izan behar du, norberaren helburuei eta beharrei jarraiki.

Bestalde, norberaren autonomiak ikasten ikasteko ahalmenari egiten dio erreferentzia. Era horretan, ikasle batek bere kasa ezagutza sortzen jarraitzeko zenbat eta baliabide kontziente gehiago izan, orduan eta autonomia handiagoa izango du.

Bi konpetentziak elkarri lotu beharko dira derrigorrezko hezkuntzan, «*(ikasleari) ikastun gisa bere burua ezagutzeko, onartzeko eta hobetzen laguntzeko aukera emango dion prozesu luzean*»<sup>11</sup>, alegia.

#### 4. Konpetentzia metadiziplinarra

Autonomiarako eta ekimenerako konpetentziak ez du diziplina baten berariazko euskarririk. Esaterako, matematika edo hizkuntza-komunikaziorako bezalako konpetentziek erreferentziazko diziplina argi bat dute.

Argi dago alor eta ikasgai guztiek oinarritzko konpetentziak garatzen lagundu behar dutela, horiek ikasgelan modu sistematikoan aplikatuz. Baina berariazko diziplina-euskarririk ez duten konpetentzien kasuan (besteak beste, autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia eta ikasten ikasteko konpetentzia), kontuan hartu behar da «*espazio jakin bat eta denbora-tarte bat zehaztu behar direla ereduak ezartzea eta ereduon erabileraren inguruko teoriar oinarritutako gogoeta egin dadila ahalbidetzeko. Aldi berean, eskolatze-aldi horretako erabilera- edo eskakizun-graduak zehaztuko dituen plan bat eduki behar da*»<sup>12</sup>.

Zabalak dioen moduan, esparru komun baten lana sustatu behar da; alegia, «*tutoretza, ikasle-talde bati laguntzen dion irakasle-talde bat koordinatzeaz arduratu beharko dena, alor eta ikasgai guztien lanketa sistematikoari esker eskuratzen diren konpetentzia metadiziplinar guztiei dagokienez*»<sup>13</sup>. Hala ere, tutoretza indartzeak, konpetentzia eskuratzeari dagokionez, ez du gainerako arloen garrantzia murrizten.

#### 5. Konpetentzia emozionala eta soziala

Pertsona autonomo da bere burua, maizten duen esparru soziala eta esparru horretan dagokion rola eta rol hori betetzeko modua ezagutzen dituen. Hau da, pertsona sozialki eta emozionalki gaitua da.

Konpetentziaren alderdi hori garatzeak berdinen arteko elkarreaginean oinarritutako metodologia aktiboak aplikatzea eskatzen die ikastetxeei zein bertako irakasle-taldee. Esaterako, lankidetzeta-lana, balio duena ikasleek beren emozioak

<sup>11</sup> MARTÍN ORTEGA, E.: «Aprender a aprender: clave para el aprendizaje a lo largo de la vida» *in* Participación educativa, 9 (2009), 74. or.

<sup>12</sup> ZABALA, A.: «Desarrollo curricular de las competencias básicas. El ámbito común o de tutoría» *in* Aula de Innovación Educativa, 180 (2009), 24. or., Graó, Bartzelona.

<sup>13</sup> ZABALA, A.: *Op. cit.*, 2009, 25. or.

modulatu eta besteenak ezagutu ditzaten, taldearen egitekoak eta interesak banakako erantzukizunekin bat egiten saiatzen diren bitartean.

Interesgarria den beste proposamen metodologiko bat ikaskuntza eta zerbitzu solidarioa da. Hezkuntza-proposamen horrek ikaskuntza-prozesuak eta komunitateari egindako zerbitzuak bateratzen ditu ondo artikulatutako proiektu bakar batean. Bertan, ikasleek baldintza errealetan lan egiten ikasten dute, euren ingurunea hobetzeko xedearekin. «*Komunitate-ikuspegiaren xedea da pertsonak ahal besteko parte-hartzea izan dezatela haiekin zerikusia duten prozesu guztietan erabakiak hartu behar direnean*»<sup>14</sup>.

Bestalde, badakigu eskolatzeko-urteak oso garrantzitsuak direla ikasleentzat; izan ere, aro horretan, pertsona autonomoa izaten ikasten dute eta hazi egiten dira, trebetasun fisikoak, kognitiboak eta emozionalak garatzen dituzten bitartean. Badakigu eskola eta familia esparruetako esperientzia guztiek eragin nabarmena izango dutela euren garapenean, eta beren etorkizuneko mundu ikuskera, jokabidea eta jarrera zehaztuko dituztela. Hori dela eta, gogoan izan behar dugu oso garrantzitsua dela familiak eta irakasleek elkarrekin lan egitea eta ikasleei adimen emozionala garatzeko aukerak ematen saia daitezela. Adimen emozionala honela definituta dago: «*arazoak konpontzea ahalbidetzen duen eta ikaskuntza-erronka sorta zabalari aurre egiteko baliabideak ematen dituen konpetentzia. Erronkak hauek dira: gure esperientzia emozionalak modulatzeko, komunikatzeko, sormenezko konponbideak sortzeko, adiskideak egitea eta laneko harremanak ezartzea, lankidetzan aritzea eta geure burua motibatzea*»<sup>15</sup>.

## 6. Bizitzarako konpetentzia

Asmo handiko gaitasuna da. Ikasle bakoitzak gizaki oso gisa izango duen garapena horren mende dago, neurri handi batean. Ikaskuntzari eta garapen pertsonalari eta sozialari eragiten die. Era berean, hainbat ekarpen egiten dizkie ikasleei, gizakiaren globaltasuna oinarritzat hartuta:

- bere buruaren ezagutza indartzen du;
- aukera berriak eta arazoak konponbideak bilatzeko orientazioa ematen die;
- bere ikaskuntzaren gaineko metakognizioa sustatzen du, gogoeta egitea eta beren irizpideak baliatuta erabakiak hartzea ahalbidetuz;
- jarrera kritikoa eta enpatia bultzatzen ditu;
- autoestimua, oreka pertsonala eta emozioen kontrola garatzen ditu; eta
- aldaketarekiko eta espiritu ekintzailearekiko jarrera positiboa izatea ahalbidetzen du.

<sup>14</sup> ELBOJ, C.; BESTE BATZUK: «Comunidades de Aprendizaje. Sociedad de la Información para todos. (Cambios sociales y algunas propuestas educativas)» in Contextos Educativos 1 (2008), 59. or., Bartzelonako Unibertsitatea.

<sup>15</sup> COHEN, J: *Inteligencia emocional. Proyectos. estrategias e ideas*, Editorial Troquel SA, Argentina, 2004, 21. or.

### 1.3. Zenbait erronka

Aurrez aipatu dugun moduan, hizpide dugun konpetentzia garatzeko ezagutza, trebetasun, abilezia, jarrera eta balio multzo bat izatea beharrezkoa da, eta horiek ez dira berez sortzen, baizik eta lan kontziente, ordenatu eta planifikatuaren ondorioz.

Jarraian, konpetentzia garatzeak ekar ditzakeen zenbait erronka aipatzen dira.

Lehenik eta behin, ikastetxea autonomia- eta ekimen-eredu izan behar da. Ingurune demokratiko batek konpetentzia garatzen laguntzen du. Ikastetxean, funtzionamendu-eredua elkarrizketan eta lankidetzalanean oinarritu behar da, eta irakasle-taldearen ezaugarri nagusia ikasketa-prozesua ikasleen esku jartzeko ahalmena izan behar da. Beste hainbaten artean, pertsona autonomo eta proaktiboen prestakuntza sustatuko da ikastetxean.

Hori lortu nahi bada, eskolako komunitatearen estamentu guztiek aktiboki parte hartu behar dute. Zuzendaritza-taldeak, esaterako, antolakuntza-egitura zehatza eta funtzionamendu eraginkorra sustatu behar ditu curriculumaren garapena ahalbidetzeko, laguntzeko eta dinamizatzeko, eta, horren bidez, norberaren autonomia eta ekimena praktikan jartzeko.

Bestetik, irakasle-taldeei dagokie honako alderdi hauen gaineko ardura: gogoeta pertsonala eta nork bere ikaskuntzaren gaineko kontzientzia izatea eta taldeko lana bateratzen dituzten metodologiak erabiltzea; egoera arazotsuak aztertzea eta ikasleek sormenezko konponbideak proposatzea; ikasteko prozesuak akatsak egitea berarekin dakarrela ulertaraztea; ikasitakoaren behin-behinekotasuna ulertaraztea, etengabe osatu eta hobetu baitaiteke; ikasteko hainbat ibilbide eskaintzea, egin beharreko lana gustura egiteko helburuarekin.

Proposamen metodologikoak ikasle bakoitza bere buruaren jabe izatera bideratu behar dira. Era horretan, ikasle bakoitza gai izango da gogoeta eginda eta modu arduratsuan bere bizitza bideratzeko, mota eta irismen ezberdineko proposamenen eta proiektuen protagonista bihurtzeko, modu autonomoan eta ekimena baliatuta funtzionatzeko, eta besteekin lankidetzan aritzeko, gizartetik bakartuta egon gabe edota portaera lehiakorrik edo insolidariorik izan gabe.

Familien ardura da seme-alabei beren eguneroko jardueretan pixkanaka autonomoagoak izaten laguntzea, erabakiak hartzen ikas dezaten, beren ekintzen gaineko erantzukizuna har dezaten, hartutako konpromisoak bete ditzaten eta akatsetatik ikas dezaten.

Ez dugu ahaztu behar lantzen ari garen konpetentzia hain konplexuaren garapenean aurreikuspenek garrantzi handia dutela; alegia, bai irakasleek beren ikasleen inguruan dituztenek, bai familiek beren seme-alaben inguruan dituztenek. Gure ikasleek autonomia eta ekimen maila altuak lortzea nahi badugu, irakasleak eta familia konbentzitututa egon behar dira ikasleek horiek lor ditzaketela, alegia, portaera autonomoak garatuko dituztela. Izan ere, espero bezain autonomoak izan ez arren, autonomo izateko zorian daude.

Amaitzeko, hezkuntza-prozesuaren protagonistak ikasleak izan behar dira. Bizitzan jarrera positiboa eta aktiboa izanez gero, banakako zein taldeko ekintzak edo proiektuak sortzeko, ekiteko eta ebaluatzeko gaitasuna garatu ahal izango dute ikasleek, eta autonomia handiagoa lortzen duten heinean, ezagutza propioa eraiki eta garatuko dute.

Baina konpetentziaren garapenean aurre egin beharreko erronkak ez dira eskolako esparrura mugatzen. Ikastetxea, familiak eta ikasleak gizarte-ekosistemaren parte dira. Ikastetxea, familia eta komunitatea elkarlanean aritu behar dira hezkuntza-esparru formalak, informalak eta ez-formalak eskaintzeko. Horiei esker, ikasleak oinarritzko konpetentziak (kasu honetan, norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia) garatuz joango dira eskolatzeko-urteetan eta bizitza osoan zehar.

Kultura ekintzaileak zeregin garrantzitsua du gizarte baten eraldaketa etengabea. Horretarako, kide bakoitzak bizitzan zehar topatzen ahal dituen aldaketa-prozesu guztietan parte-hartze aktiboa eta espirtu kritikoa eta independentea izan dezala sustatu beharko da. Bestela esanda, «*erabateko partaidetza egongo da, baldin eta erabakiak ekintza bihurtu behar dituztenek hartzen badituzte erabaki horiek*»<sup>16</sup>.

Unitate psiko-sozial guztiek, txikienetik hasita –familia, alegia–, eginkizun garrantzitsua dute gizartean behar bezala jokatzeko printzipio moralak sendotzeko prozesuan eta balio eta jarrera prosozialen garapenean. Eginkizun hori ezinbestekoa da benetan libre eta arduratsuak, eta ondorioz, autonomoak diren herritarrez osatutako gizarte demokratiko batean. Autonomiaren eta ekimenaren garapenari esker, era berean, balio berriak eta jarrera-aldaketak indartuko ditugu. «*Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziaren eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren artean lotura estua dago, bai eta, ondorioz, genero-indarkeriaren prebentzioaren artean ere. Erantzukizuna eta errespetua abiapuntutzat hartuta, hezkuntza-sistemek emakumeak baztertzeko dituzten estereotipoak eta aurreiritziak deuseztatzen dituzten banakako eta taldeko identitateak eraikitzea ahalbidetu behar dute*»<sup>17</sup>. Berdintasunetik identitatea eraiki ahal izateko, eskolaren, familien eta komunitatearen erantzukizun partekatua beharrezkoa da, horietan heziko baitira gure herrialdeko etorkizuneko herritarrak.

<sup>16</sup> LOWIN, A.: «Participative decision making» in *Organizational Behaviour in Human Performance*, 3 (1968), 68, 106. or. University of California at Berkeley, AEB.

<sup>17</sup> CHICANO, E.: «Autonomía e iniciativa personal, base del desarrollo para la igualdad» in *Participación educativa* 9, 79. or., Tribuna Abierta.

## 2. Konpetentziaren deskribapena

Norberaren autonomia eta ekimena konpetentzia oinarritzkoa da, ikaslea bere ezagutzaz eta gaitasunez zein inguruneaz (eta honetan esku hartzeko aukeraz) jabetu dadila ahalbidetzen duena. Era berean, norberak dituen aukerez jabetzeko balio du, proiektu pertsonalak martxan jarri ditzan eta taldeko proiektuetan parte hartu dezan; hau da, ikasleak munduan duen lekua aurkitzeko lagungarria da.

Konpetentzia hori garatzearen xedeak dira proiektuak sortzeko, definitzeko eta gauzatzeko ahalmena hobetzea eta egungo gizartearen aldaketetara egokitzeko gai izatea, eta konpetentzia hori bera garapen akademikoaren, pertsonalaren eta sozialaren motorra da.

*«Era berean, adimen emozionala deitutakoaren zenbait alderdi barne hartzen ditu. Hori ez da hala hezkuntza tradizionalan, arretagunea bizitza bera izan ordez, jakintza akademikoa eta diziplina-jakintza baitira»<sup>18</sup>. Gakoa norberaren eta besteen emozioak modulatzeko da, bai eta bere buruarekin eta besteekin harreman positiboak ezartzea ere. Hala, ikasleak pertsona gisa garatuko dira, eta arauak eta balioak ezagutu eta onartuko dituzte harik eta kode moral propioa eratu arte, norberaren identitatearen osagai bihurtuko dena.*

Konpetentzia garatzeak ikaskuntza integralean eta garapen pertsonalean eta sozialean eragina du, ondoko arrazoi hauengatik:

- Konpetentziaren garapenak hainbat xede ditu, alde batetik, ikasleek erabakiak har ditzatela, irizpide propioa baliatuta eta izan ditzakeen ondorioak onartuta; bestetik, ikasleek trebetasun pertsonalak eskura ditzatela, esaterako, erabakimena, sormena, autoestimua, autokritika, ekimena eta emozioak moldatzea, erronka berriei aurre egin diezaieten.
- Beharrezkoa da erronken eta aukeren gaineko ikuspegi estrategikoa izatea, helburuak zehaztu eta betetzeko lagungarria delako, hala nola hasitako lanetan arrakasta lortu artean motibazioari eusteko, anbizio pertsonal, akademiko eta profesional tolesgabeari esker.
- Aldaketaren eta berrikuntzaren aldeko jarrera positiboa dakar, hala nola planteamendu malgutasuna. Horrela, aldaketak aukera gisa uler daitezke, eta horietara modu kritiko eta eraikitzailean egokitu, arazoei aurre egin eta hasitako bizi-proiektu bakoitzari konponbidea emateaz gain.

---

<sup>18</sup> CONTRERAS JORDÁN, OR.: «Autonomía e iniciativa personal, una competencia para la vida» *in* Multiárea 9 (2009), 110. or., Dialnet, Ciudad Real.

- Ideiak ekintza bihurtzea esan nahi du; hau da, helburuak proposatzea eta estrategien kudeaketa, proiektuen garapena eta emaitzen balorazioa planifikatzea.
- Aurretiko planteamenduetatik aldentzea edo ideia berriak sortzea, konponbideak bilatzea eta horiek praktikan jartzen saiatzea eskatzen du. Alegia, aukerak eta mugak aztertzea, planifikatzea, erabakiak hartzea, ekitea, egindakoa ebaluatzea eta norbera ebaluatzea, ondorioak ateratzea eta hobetzeko aukerak baloratzea.
- Zenbait trebetasun sozial eduki behar dira: besteekin harremanak ezartzea, lankidetzan aritzea, taldean lan egitea, bestearen lekuan jartzea, besteen ideiak baloratzea eta asertibotasuna; hau da, gaitasun sozial eta emozional handiagoa izatea eta egoera ezberdinetan aurrera egiteko estrategia pertsonalak izatea, horrek guztiak ongizate-sentimendua dakarrelako eta ikasle bakoitzari bere identitatea eraikitzen eta barneratzen laguntzen diolako.

Konpetentzia honen beste dimentsio garrantzitsu bat da, ikuspegi sozialarekin zerikusi handia duena, *proiektuen liderra* izateari lotutako trebetasunek eta jarrerak eratzen dutena. Horien artean daude norberaren buruarenganako konfiantza, enpatia, hobetzeko grina, elkarrizketarako eta lankidetzarako trebetasunak, denbora eta zereginak antolatzea, eskubideei eusteko eta defendatzeko ahalmena eta arriskuak hartzea<sup>19</sup>. Halaber, dimentsio horretan sartzen dira (nahiz eta garapen-maila ezberdinak dituzten) taldean ekimena izateko ahalmena eta lantaldea kudeatzeko, bultzatzeko, motibatze, adoretzeko eta, batez ere, lantaldeari konfiantza emateko gaitasuna.

XXI. mendeko gizarteak *espíritu ekintzailea* duten pertsonak behar ditu, ideia berriak imajinatze eta sortze edota konponbide ezberdinak bilatzeko gai direnak, ideiak eta konponbideak aurrera eramateko ahalmena dutenak, eta lehenengo zailtasunaren aurrean amore ez emateko behar adinako jarraitutasuna dutenak. *«Ikasleek, adin goiztiarretik, bere ekimenak sortzen ikasi behar dute. Kultura ekintzailea, era horretan, trebetasunen eta gaitasunen garapenaren barruan sartuko da, eta ekintzaile mota askoz zabalagoa sortzen lagunduko du. Ekintzaile mota horri esker, eta etorkizun-ikuspegia baliatuta, aipatutako gaitasunak esparru guztietan aplikatu ahal izango dituzte gizabanakoek, bai eta gizarteak eraldatzen lagunduko duten ekimen berritzaileak proposatu ere»<sup>20</sup>.*

Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizartearen Departamentuak martxan jarritako Kosmodisea ekimena. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-esparrura zuzenduta dago: Lehen Hezkuntza,

<sup>19</sup> 2007ko azaroaren 13ko EHAA. 218. gehigarria, III. eranskina, 18-19. or.

<sup>20</sup> LÓPEZ, J: *Las competencias básicas del currículo en la LOE*, Hezkuntza eta gizarteari buruzko V. nazioarteko kongresua, Andaluziako Junta, 2006, 28. or.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako heziketa zikloak. Ekimen horren helburuak ekimena bultzatzea eta kultura ekintzailearen balioak (sormena, autokonfiantza, ekimena, eksklusibotasuna, erantzukizun soziala, etab.), gaitasunak eta trebetasunak garatzea dira, talde-lanaren eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bidez<sup>21</sup>. Horrez gain, konpetentziaren garapenean *sormenak* duen garrantzia azpimarratu behar dugu. Sormena gizaki guztiok –neurri txikiagoan zein handiagoan– dugun gaitasuna da, ideia edo kontzeptu berriak sortzeko edo jada ezagutzen ditugun ideien eta kontzeptuen arteko erlazio berriak ezartzeko balio duena, eta, oro har, konponbide berriak dakartzana.

J.A. Marinak dioenez, «*sorkuntzaz hitz egingo dugu arazo bat modu berri batean eta eraginkortasunez ebazteko ahalegina egiten denean. Sortzailea den pertsona bat eta ez den beste bat bereizten dituen arazoei aurre egiteko irtenbide berriak bilatzeko nahia da. Izan ere, sortzailea den pertsonak ez ditu adimenaz bestelako eragiketak erabiltzen, adimenezkoak beti erabiltzen baititu; baina desberdin erabiltzen ditu. Eta bestelako era hori da, hain juxtu, adimen arruntak eta adimen sortzaileak bereizten dituen*».<sup>22</sup>

Konpetentzia horren garapena zeharka landu beharra dago, aurrez aipatu dugun moduan, norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziak ez duelako berariazko diziplina-euskarririk. Hori dela eta, Escamillak honako hau proposatzen du: kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak arlo guztietan txertatzea eta hurrengo alderdietara lotzea<sup>23</sup>:

- **Norbera ezagutzea:** elkarren artean lotutako balio eta jarrera pertsonalak hauteman eta aplikatzea; alegia, erantzukizuna, jarraikitasuna, autoestimua, sormena, autokritika, aukeratzeko ahalmena, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egitea.
- **Besteak ezagutzea:** besteekin erlazionatzeko, lankidetzan aritzeko eta talde-lana egiteko trebetasun sozialak izatea.
- Testuinguru soziala eta kulturala ezagutzea, bai eta beroien erakundeak, ezaugarriak, **printzipioak, balioak eta arauak** ere.
- **Erabaki** funtsatuak **hartzea**, aukeratzeko, irizpide propioa baliatuta: proiektuak imajinatzea eta aukerak eta planak garatzeko ekintzak gauzatu ahal izatea.

<sup>21</sup> **Planeta ikono - Kosmodisea: Ekin... Sortu!** (<http://www.kosmodisea.net/index.php?lang=es>).

<sup>22</sup> MARINA, J.A.: hizlari garrantzitsua Malagako *Gizaki sortzailea, buru argien biltzarrean*. *Revista Creatividad y sociedad* aldizkarian argitaratua, XVI (2011), Madril: <http://www.creatividadysociedad.com/articulos/16/7-EI%20Ser%20Creativo%20Jose%20Antonio%20Marina.pdf>.

<sup>23</sup> ESCAMILLA, A.: «Competencias básicas y modelos de intervención en el aula» *in* Andaluziako I. Ikuskaritza Batzarra, Mijas. 2010, 3. or.



- **Aldaketarako eta berrikuntzarako jarrera positiboa** garatzea.

Konpetentzia garatzeko metodoei eta jardueri dagokienez, Puigek eta Martínek honako hau proposatzen digute<sup>24</sup>:

- **Eskolako partaidetza eta autogobernua.** Hau da, ikasleek partaidetza aktiboa izatea ikastetxeetan, eskolako bizitzari lotutako ahal adina alderdiri dagokienez.
- **Ikasketa kooperatiboa.** Berdinen arteko elkarreraginean oinarritutako baliabide horren bidez, bestak beste, ikasleek elkarrekikotasun-harremanak ezarriko dituzte, negoziatzen ikasiko dute eta bestearen ikuspuntuaz jabetuko dira.
- **Norberaren inguruko gogoeta** egitea, hainbat ariketen bidez: biografia idaztea, autoebaluazio-teknikak eta balioak argitzeko teknikak. Horiei esker, ikasleak bere burua hobeto ezagutuko du.
- **Proiektuak lan egitea**, ikaskuntza autonomoa eta ikerketa kooperatiboa lantzea ahalbidetzen duen neurrian. Bertan, ikasleak zereginaren konplexutasunaz jabetuko dira, informazioa kudeatuko dute, entsegua-akatsa metodoa baliatuko dute, informazioa sortu eta jakinarazi eta ebaluazioa egingo dute.
- **Autonomia eta deliberamendu moralak**, egoera eztabaidagarriak eta/edo egunerokoak elkarrizketaren bidez konpontzeko proposamen metodologiko gisa. Horretarako, hainbat ariketa proposatzen dizkigute, dilema moralen inguruko eztabaidak eta testuen edo ariketen ulermen kritikoa, kasu.
- **Ikaskuntza-zerbitzua**, ikaskuntza eta komunitateari egindako zerbitzuak bateratzen dituen hezkuntza-proposamena. Horren xedeak herritarrak trebatzea, balioetan hezteak eta eskolan ikasitakoari zentzua ematea dira. Horretarako, irakasleak eta hurbileko ingurunea kontuan hartuz, komunitateari laguntzeko jarduerak proposatzen ditu.

*«Ikus daitekeen bezala, asmo handiko konpetentzia da, eta ikasleen etorkizuna (bizitzakoa eta profesionala) horren mende egongo da neurri handi batean. Konpetentziak askotariko bertuteak barne hartzen ditu: bertute moralak, hala nola jarraitutasuna, ausardia eta erantzukizuna; bertute intelektualak, esaterako, proiektuak egiteko, planifikatzeko eta modu kritikoan ebaluatzeko ahalmena; eta bertute sozialak, lankidetzak, talde-lana eta lidergoa, kasu»<sup>25</sup>.*

<sup>24</sup> PUIG, J. M.; MARTÍN, X.: *Competencia en autonomía e iniciativa personal*, Alianza Editorial, Madril, 2007, 95-180. or.

<sup>25</sup> MARINA, J.A.: «La competencia de emprender» in *Revista de Educación*, 351 (2010), 59. or. (<[http://www.revistaeducacion.educacion.es/re351/re351\\_03.pdf](http://www.revistaeducacion.educacion.es/re351/re351_03.pdf)>).

### 3. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziaren dimentsioak

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia **hiru dimentsio handitan** egituratuta dago. Dimentsio horietako bakoitzak azpikonpetentzia multzo bat biltzen du, eta horietako bakoitzarentzat, ebaluazio-adierazle batzuk zehaztuta daude.

Adierazleok, batetik, ikasleak konpetentzia menderatzen duela frogatzeko egin behar dituen lanak edo eragiketak zehazten dituzte, eta, bestetik, bizitza kooperatiboa, autonomia, solidarioa, partaidetzazkoa eta ekintzailea izateko beharrezkoa den jarrera pertsonalen multzoa ezagutarazten dute (horiek baliagarriak izango dira norberarentzat, bai eta besteekin elkarreragiteko ere).

Hona hemen norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziaren hiru dimentsioak. Dimentsio bakoitza, aldi berean, azpikonpetentzietan banatzen da, ondoko koadro honek adierazi bezala:

#### 1. dimentsioa: Pertsona autonomoa izateko jarrerak eta balioak ezagutzea eta horiek garatzea.

1. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko eta proiektuei ekiteko beharrezkoak diren jarrerak eta balioak hautematea.
2. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko eta proiektuei ekiteko beharrezkoak diren jarrerak eta balioak garatzea.

#### 2. dimentsioa: Proiektu pertsonalak planifikatzea eta martxan jartzea.

3. Proiektu pertsonalen eta erronka berrien plangintza egitea.
4. Proiektuak eta erronka berriak garatzea.
5. Proiektuaren balorazio pertsonala eta ondorioak.

#### 3. dimentsioa: Taldeko proiektuetan parte hartzea.

6. Talde-lanean parte hartzea.
7. Erantzukizunak eta lidergo-zereginak bere gain hartzea.

Orain, dimentsio bakoitzaren ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, dimentsio bakoitza azaltzeko eta adibideekin adierazteko.

### **1. Pertsona autonomoa izateko jarrerak eta balioak hautematea eta garatzea**

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetenziaren alderdi indibidualena da. Izan ere, alde batetik, pertsona autonomoa izateko beharrezkoak diren jarrera eta balioei lotuta dago, eta, bestetik, bizitzako egoerei aurre egin eta proiektuei ekin ahal izateko jarrerari eta balio horien garapenari heltzen dio.

Ikasleei beren buruaren gaineko iritzi ona izatea laguntzen die, hau da, ikasleak bere ahalmenak eta mugak ezagutu eta onar ditzake, autoestimua, jarraitutasunaren eta erantzukizunaren garrantziaz jabetzen da eta bere zenbait emozio hautemateko gai da.

Dimentsio horrek, era berean, arazoei aurre egiteko edo hautatutako proiektuei ekiteko balio eta jarrera pertsonalak aplikatzea eskatzen die ikasleei, arrisku posibleak bere gain hartuz eta frustrazioarekiko tolerantzia erakutsiz. Halaber, hobetzeko grina eskatzen du, sortu daitezkeen arazoak eta erronkak gainditu ahal izateko. Baina hori guztia gertatzeko, ikasleak bere burua ezagutu beharko du, eta bere buruarekin harreman egokiak eta positiboak izan.

Bestalde, arreta emozioetan jartzen duten gaitasunak garatu behar dira, gogoaldarteak hautemanez eta mendean hartuz. Eta autoestimu positiboa eta errealista lortu behar da, oinarritzat hartuko dituen norberaren buruarenganako konfiantza eta besteen estimua. Azkenik, arazoei modu arduratsuan eta anbizio pertsonal zintzoarekin aurre egin behar zaie.

### **2. Proiektu pertsonalak planifikatzea eta garatzea**

Konpetenziaren dimentsio garrantzitsu bat da, proiektu pertsonalen plangintza, garapen eta balorazioari lotutako trebetasunak eta jarrerak biltzen dituen. Mota askotako arazoak konpondu ahal izateko baliagarriak diren ezagutza bereganatu guztiak eta nortasun ezaugarriak modu integratuan eta globalean garatzea da kontua.

Horren arabera, ikasleek beren ahalmenetara egokitu behar dituzte proiektuak eta, horretarako, aukera eta plan pertsonalak garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta martxan jarri behar dituzte, esparru pertsonalean, sozialean, akademikoan zein profesionalean. Halaber, eskura dagoen eskaintza akademikoa, lanekoa eta aisialdikoa trebetasun, desira eta proiektu pertsonalekin uztartzeko gai izan behar dira.

Esan dezakegu, beraz, ikasle bakoitzak, bizitza pertsonalaren proiektua modu aktiboan eta arduratsuan eraiki ahal izateko, bere baliabide pertsonalak (trebetasunak, jarrerak, ezagutzak eta esperientziak) erabiltzen dituen moduari dagokiola dimentsio hori.

Dimentsio horrek, halaber, barne hartzen du gauzatutako ekintzak aztertze, baloratzeko, ikasitakoa berrantolatze eta ondorioak ateratzeko (emaitzak egoera eta testuinguru berrietan aplikatu ahal izateko) edonork duen ahalmena.

### 3. Taldeko proiektuetan parte hartzea

Dimentsio hori oso lotuta dago ikuspegi sozialenari, lidergoari, modu askean eta errespetuz jarduteko trebetasunari eta balio pertsonal, sozial eta demokratikoei.

Printzipio etiko jakin batzuetan oinarritutako moralitatea garatzean datza: gizabanakoen eta taldeen arteko akordioak lortzen eta behar bezalako jokabidea izaten saiatzea, bai eta ordena soziala mantentzeko, gizabanakoen eskubideak defendatzeko, bakoitzak dituen zereginak onartzeko eta ideiak errespetatu eta eskubideak aktiboki defendatzeko beharrezkoak diren arauak adosten saiatzea ere.

Pertsona-arteko gaitasunek barne hartzen dituzte gizabanako bakoitzak bizitza sozialean modu aktiboan eta eraikitzailean parte hartzeko eta gatazkak konpontzeko (beharrezkoa denean) menderatu behar dituen portaera guztiak. Besteen egoera emozionalak eta pertsona-arteko zeinuak bereiztea eta hautematea ahalbidetzen du, bai eta ekintza horiei modu eraginkorrean eta egokian erantzutea ere.

Taldeko proiektuen plangintza eta garapenerako beharrezkoak dira proiektuen garapen-fase bakoitzari dagozkion trebetasunak: beharrak hautematea, erabakiak hartu eta praktikan jartzea, eta, beharrezkoa denean, proiektua ebaluatzea eta eguneratzea. Horiez gain, aipatu behar dira, besteak beste, hainbat ikaskuntza-baliabideren erabilerrari eta lan kooperatiboari lotutakoak.

Azkenik, badira hizpide dugun konpetentziaren garapenean ezinbestekoak diren beste alderdi batzuk, lidergo-ahalmena, trebetasun sozialen erabilera, sormena eta zentzu kritikoa, kasu. Ikasleak, bestalde, ekimen propioak eta hainbat balio izan behar ditu: zintzotasuna, hobetzeko grina, jarraitutasuna eta erantzukizuna.

Norberaren autonomiak eta ekimenak eragiten duen espiritu ekintzailea sustatzeak hainbat alderdi dakar berekin: norberaren ekintzen (positiboak nahiz negatiboak) gaineko erantzukizuna hartzea, ikuspegi estrategikoa garatzea, helburuak finkatu eta betetzea, eta arrakasta izateko motibazioa izatea.

Bestalde, dimentsio pertsonala eta soziala txertatzeko, ezinbestekoak dira ikasleak bere burua ezagutzea eta bere buruarekin harreman egokiak ezartzea. Horretarako, honako hauek beharrezkoak dira:

- Emozioak erregulatzea, norberarentzat eta besteentzat kaltegarriak diren gogo-aldarteak identifikatuz eta mendeant hartuz.
- Norberaren jokaera erregulatzea, ahalegin pertsonala mantentzeko gai izanda.
- Autoestimu positiboa eta errealista lortzea, nork bere buruan duen konfiantza eta besteen estimua oinarritzat hartuta.
- Modu autonomoan jardutea, erabaki pertsonalak hartuz.
- Besteekin elkarlanean aritzea, xede komunak lortze aldera<sup>26</sup>.

---

<sup>26</sup> 2007ko azaroaren 13ko EHAA. 218. gehigarria, III. eranskina, 19. or.

## 4. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia hiru dimentsiotan egituratzen da; horiek, aldi berean, Lehen Hezkuntzako 4. mailak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailak partekatzen duten azpiegitura multzo bat biltzen dute. Bi maila horietako bakoitzarentzat, adierazle talde bat zehaztu dugu azpikonpetentzia bakoitzeko.

Ebaluazioa, ikasleen emaitzetara bideratzeaz gain, prozesuan parte hartzen duten funtsezko hiru aldagaietako edozeinetara bideratu behar da: irakasleek bultzatutako ekintzak, ikasleek egindako esperientziak eta ikaskuntza-edukiak.

### 4.1. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako:

**Hasierako mailan** dagoen ikasleak estrategia multzo mugatua du bere kasa eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko. Eskolako materialekiko zein langileekiko erantzukizuna adierazten du, bai eta bere zereginarekiko ere, nahiz eta batzuetan besteek eskatuta egin (helduek, oro har).

Maila horretako ikasleari helduek aholku eman behar diote ustekabeko egoera bat konpontzeko aukera berriak planteatu behar dituenean. Proiektu pertsonalen plangintza egiteari dagokionez, oso epe motzeko helburuak ezartzen ditu. Helburu baten betetze-maila aztertzen hasiko da, hala nola espero bezalako emaitzak lortu ez izana onartzen. Era berean, lan-plan baten garapenean ideia onak eta akatsak identifikatzeko gai da, eta antzeko egoera baten aurrean etorkizunean hobeto aritzeko helduek edo ikaskideek egindako gomendioak onartzen ditu.

Talde-lanaren garrantzia aitortzen du, bai eta xede komunak erdiesteko taldekide bakoitzak egiten duen ahalegina ere. Besteak entzuteak duen garrantziaren jakitun da. Beharrezkoa denean, ikaskideekin elkarlanean aritzen da, eta dagozkion lanak bere gain hartzen ditu, batzuetan gainbegiratzaille baten laguntzaz. Erabakiak hartzeko, gainerako taldekideen iritzietan eta helduen gomendioetan oinarritzen da; behin edo behin, arazo edo gatazka bat ebazteko bideragarria den beste aukeraren bat ematen du.

**Erdi mailako** ikasleak beste gaitasun batzuk ditu hasierako mailakoez gainera. Lehenik eta behin, zeregin berriei heltzerakoan bere zenbait indargune hautemateko gai da eta, ondorioz, bere buruan duen konfiantza aurreko mailako ikasleena baino handiagoa da. Era berean, behar duenean laguntza eskatzeko gai da. Oro har, materialen eta objektu pertsonalen gaineko erantzukizuna hartzen du, eta zereginetan saiatua da. Horrez gain, bere oinarritzko emozio batzuk hautemateko ahalmena du, eta frustrazioarekiko nolabaiteko tolerantzia adierazten du, heldu batek lagunduta,

normalean. Zenbaitetan, besteen kritikak ondo hartzen ditu eta egindako akats batzuk hitzez adierazten ditu.

Erabaki pertsonalak hartu behar dituenen, maila horretako ikasleak ezagutza txikia du bere mugei buruz eta aurreikusten dituen zenbait zailtasunen berri emateko gai da. Eguneroko arazoak konpontzeko beste aukera batzuk bilatzen saiatzen da, eta beste batek lagunduta, proiektu pertsonal bat aurrera eramateko eman behar diren pausoak adierazi ditzake. Proposamen jakin baten abantailak eta desabantailak hautematen ditu, eta bideragarriena aukeratzen du, heldu batek aholkatuta, oro har. Lana amaitutakoan, kanpoko laguntza baliatuta, prozesua baloratzeko eta hobetu daitezkeen alderdiak hautemateko gai da.

Talde-lanean, bere iritzia ematen du (batzuetan besteen iritzien eraginpean dagoena), eta hitz egiteko txandak errespetatu ohi ditu. Lanaren planifikazioan laguntzen du, eta taldeak esleitutako zereginak egiten ditu ia beti. Ikaskideen emozio batzuk hautematen ditu, eta horien aurrean zuzen jarduteko gai da.

**Maila aurreratuan** dagoen ikaslearen gaitasunak hasierako eta erdi mailetakoez haratago doaz. Bere buruarengan badu nolabaiteko konfiantza egoera berriei aurre egiteko, eta akats ohikoenetatik ikasten du. Eguneroko arazo baten aurrean, bideragarriak diren aukera berriak eman eta baloratu ohi ditu. Oro har, besteen kritika eraikitzaileak onartzen ditu.

Maila horretako ikaslea proiektu pertsonal baten oinarritzko alderdiak zehazteko eta bitarteko errearen araberrako planifikazio bat egiteko gai da. Plangintza egiterakoan, bere mugak aintzat hartu ohi ditu, eta proiektuaren garapenean sortu daitezkeen zailtasun batzuk aurreikus ditzake. Bere oinarritzko emozioetako batzuk erregulatzen hasten da. Proiektu pertsonal bat amaitu ondoren, hura hobetzeko aukerak aipa ditzake.

Talde-lanetan besteen iritzia entzuten eta jasotzen ditu, baina ados ez baldin badago, bere jarrera defendatzeko gai da. Besteen proposamen berritzaileak arretaz entzuten ditu, eta sormenezko irtenbide egingarriak eman ohi ditu. Lanaren plangintza taldekide guztiekin adosteko gai da. Akordioak lortzeko, elkarrizketa eta negoziazioa erabili ohi ditu. Bere ikaskideen emozio batzuk hautematen ditu, eta horien aurrean egoki jarduteko gai da.

**1. dimentsioa: PERTSONA AUTONOMOA IZATEKO JARRERAK ETA BALIOAK HAUTEMAN ETA GARATZEA**

**1. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko eta proiektuei ekiteko beharrezkoak diren jarrerak eta balioak hautematea**

- a) Bere zenbait ahalmen eta muga ezagutzen ditu, bai zereginiei heldzerakoan, bai erantzukizuna bere gain hartzerakoan.
- b) Autoestimua duen garrantzia ezagutzen du.
- c) Jarraitutasunari bizitza-jarrera garrantzitsu deritzo.
- d) Erantzukizunari eguneroko bizitzako ezinbesteko balio deritzo.
- e) Bere zenbait emozio ezagutzen ditu.

| Hasierako maila  | Erdi maila  | Maila aurreratua  |
|--|---|---|
| <p>- Bere trebetasun pertsonal batzuk hautematen ditu eta bere mugez ohartzen da, heldu baten laguntzaz.</p> <p>- Behar duenean, laguntza eskatzen die beste pertsona batzuei.</p> <p>- Zenbaitetan, bere buruarenganako konfiantza du lana burutzerakoan.</p> <p>- Noiz edo noiz, saiatur da jarduerak egiten.</p> <p>- Bere materialen eta objektu pertsonalen gaineko ardura hartzen du, gainbegiratzaile baten laguntzaz.</p> <p>- Ikaskideekin elkarlanean aritzen da, eta esleitutako funtzioak bere gain hartzen ditu, irakasleen laguntza baliatuta.</p> <p>- Zenbait oinarrizko emozio hautematen ditu (haserrea, poza, tristura, beldurra edota lotsa), besteen laguntzaz.</p> | <p>- Lana modu autonomoan egiteko bere zenbait trebetasun eta muga ezagutzen ditu, besteek erakusten diotenaren bidez.</p> <p>- Behar duenean, laguntza eskatzen du.</p> <p>- Sarritan, bere buruarenganako konfiantza erakusten du zereginak egiterakoan.</p> <p>- Noiz edo noiz, saiatur da jarduerak egiten.</p> <p>- Oro har, materialen eta objektu pertsonalen gaineko ardura hartzen du.</p> <p>- Oro har, zereginen gaineko ardura hartzen du.</p> <p>- Zenbait oinarrizko emozio hautematen ditu (haserrea, poza, tristura, beldurra edota lotsa).</p> | <p>- Zenbait trebetasun eta muga ezagutu eta onartzen ditu, eta horiek kontuan hartzen ditu zereginak modu autonomoan egiteko.</p> <p>- Laguntza eskatzen du arazoa bere kasa konpondu ezin duenean.</p> <p>- Oro har, bere buruarenganako konfiantza du zereginak egiterakoan.</p> <p>- Zereginetan saiatur da, zailtasun txikiak izan arren.</p> <p>- Bere materialen eta objektu pertsonalen gaineko ardura hartzen du.</p> <p>- Talde-lanean esleitutako zereginen gaineko ardura hartzen du.</p> <p>- Zenbait oinarrizko emozio hauteman eta onartzen ditu (haserrea, poza, tristura, beldurra edota lotsa).</p> |

## 2. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko eta proiektuei ekiteko beharrezkoak diren jarrerak eta balioak garatzea

- a. Arrisku posibleak bere gain hartuta arazoei aurre egiten die.
- b. Egoki eta irizpide propioa baliatuta aukeratzen du.
- c. Zaintza pertsonalaz arduratzen da eta konfiantza adierazten du bere ahalmenetan.
- d. Frustrazioarekiko tolerantzia erakusten du.
- e. Ekintzailea da eta hobetzeko grina du.

| Hasierako maila   | Erdi maila  | Maila aurreratua  |
|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabaki bat hartu behar denean, zenbait arrisku hautematen ditu heldu baten laguntzaz.</li> <li>- Erabakiak hartzeko, taldekideen iritzietan oinarritzen da.</li> <li>- Positiboki baloratzen ditu osasunari, higieneari eta babes eta segurtasun pertsonalari buruzko zenbait arau.</li> <li>- Noiz edo noiz, onartzen du ezin dela nahi duena lortu, heldu baten laguntzaz.</li> <li>- Batzuetan, aukera berriak eta bideragarriak proposatzen ditu arazo edo gatazka baten aurrean.</li> <li>- Eskolako esparruan hobetu daitezkeen zenbait alderdi hautematen ditu, heldu baten edo ikaskideen laguntza baliatuta.</li> <li>- Behin edo behin, sormenezko jarrera erakusten du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabaki baten aurrean, arrisku-egoera batzuk hauteman eta onartzen ditu, heldu batek lagunduta.</li> <li>- Erabakiak hartzen ditu besteen laguntzaz.</li> <li>- Osasunari, higieneari eta babes eta segurtasun pertsonalari buruzko zenbait arau onartu eta betetzen ditu.</li> <li>- Nahi duena lortu ezin duela onartzen du, eta bere jarrera erregulatzeko beharra aitortzen du.</li> <li>- Askotan, aukera berriak eta bideragarriak proposatzen ditu arazo edo gatazka baten aurrean.</li> <li>- Eskolako esparruan hobetu daitezkeen zenbait alderdi identifikatzen ditu.</li> <li>- Sarritan, sormenezko jarrera erakusten du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbait egoera arazotsuri aurre egiteko, aurreikusitako arrisku batzuk hartzen ditu.</li> <li>- Zenbaitetan, egoki eta irizpide propioa baliatuta egiten du aukera.</li> <li>- Osasun, higiene eta segurtasun pertsonalari buruzko arauak onartu eta betetzen ditu.</li> <li>- Nahi duena lortzen ez duenean, bere jarrera kontrolatu ohi du.</li> <li>- Aukera errealistak bilatzen, aukeratzen eta proposatzen ditu arazo edo gatazka baten aurrean.</li> <li>- Eskolako esparruan hobetu daitezkeen zenbait alderdi identifikatu eta aldaketak proposatzen ditu.</li> <li>- Sormenezko proposamenak egiten ditu.</li> </ul> |



## 2. dimentsioa: PROIEKTU PERTSONALAK PLANIFIKATZEA ETA MARTXAN JARTZEA

### 3. Proiektu pertsonalen eta erronka berrien plangintza egitea

- a. Eguneroko egoera arazotsuak konpontzeko irtenbideak sortzen ditu.
- b. Aukerak aztertu eta irtenbideak proposatzen ditu.
- c. Proiektuak bere ahalmenetara egokitzen ditu.
- d. Proiektu bat aurrera eramateko eman behar diren pausoak planifikatzen ditu.

| Hasierako maila   | Erdi maila  | Maila aurreratua  |
|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera arazotsu bat ulertu ahal izateko, konponbide egokiak aurkitzen parte hartzen du, heldu baten laguntzaz.</li> <li>- Heldu batek lagunduta, arazo bat konpontzeko aukera berri bat bilatzen du.</li> <li>- Heldu batek lagunduta, proposamen zehatz baten abantaila eta desabantaila batzuk identifikatzen ditu.</li> <li>- Heldu batek lagunduta, ordezeko aukera posibleak aztertzen ditu eta bideragarriena aukeratzen du.</li> <li>- Heldu batek edo ikaskideek lagunduta, bere zenbait ahalmen eta muga ezagutu eta onartzen ditu planifikazioa egiterakoan.</li> <li>- Bere proiektuak aurrera eramateko beharrezkoak diren pausoak zehazten ditu, heldu baten laguntzaz.</li> <li>- Epe motzera lor daitezkeen zenbait xede planteatzen ditu, heldu baten edo ikaskideen laguntzaz.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbaitetan, aurrea hartzen du eta arazo bat ulertzeko irtenbideren bat proposatzen du.</li> <li>- Arazo bat konpontzeko, aukera bat baino gehiago bilatzen ditu.</li> <li>- Heldu batek lagunduta, proposamen zehatz baten abantaila eta desabantaila batzuk hauteman eta aipatzen ditu.</li> <li>- Besteen aholkuak aintzat hartuta, aukerak aztertu eta bideragarriena aukeratzen du.</li> <li>- Besteen laguntzaz, bere zenbait gaitasun eta muga ezagutzen eta onartzen ditu planifikazioa egiterakoan, eta, batzuetan, horiek aintzat hartzen ditu.</li> <li>- Beste pertsona batzuen ekarpenetatik abiatuta, bere proiektuak aurrera eramateko eman behar diren pausoak zehazten ditu.</li> <li>- Epe motzearan lor daitezkeen zenbait helburu planteatzen ditu.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera arazotsu bat ulertu ahal izateko, irtenbide posibleak osatu eta egiaztatzen ditu.</li> <li>- Arazo bat konpontzeko, aukera bat baino gehiago bilatzen ditu.</li> <li>- Proposamen zehatz baten abantaila eta desabantaila batzuk zehaztu eta aipatzen ditu.</li> <li>- Ordezko aukera posibleak aztertzen ditu eta bideragarriena aukeratzen du.</li> <li>- Sarritan, bere ahalmenak eta mugak kontuan hartzen ditu plangintza egitean.</li> <li>- Bere proiektuak aurrera eramateko beharrezkoak diren pausoak zehaztu eta ordenatzen ditu.</li> <li>- Epe motzearan lor daitezkeen helburuak finkatzen ditu.</li> </ul> |

|   |  |  |
|---|--|--|
| - Baliabideak antolatzen ditu, eta lan pertsonala eskatzen duten zereginen banaketan laguntzen du, heldu baten laguntzaz. | - Baliabideak antolatzen ditu eta lan pertsonala eskatzen duten zereginak esleitzen ditu, heldu baten laguntzaz. | - Lan pertsonala eskatzen duten baliabideak eta zereginak antolatzen ditu. |
|---|--|--|

**4. Proiektuak garatzea eta erabakiak hartzea**

- a. Lanerako motibazioa eta gogo handia mantentzen ditu.
- b. Ordezko aukerak bilatzen ditu, eta proposamena egin eta praktikan jartzen du.
- c. Irizpide propioa baliatuta erabakiak hartzen ditu.
- d. Egoeran egoerako emozioetako batzuk kontrolatzen ditu.
- e. Berehalako asebetetzea atzeratzen du, helburu bat lortze aldera.

| Hasierako maila   | Erdi maila  | Maila aurreratua  |
|---|---|---|
| - Norbera motibatzen duten egoerak hautematen ditu.   | - Norbera motibatzen duten egoerak hauteman eta zehazten ditu.  | - Motibazioa dakarkioten egoerak hautematen ditu, eta, batzuetan, erabiltzen ditu lehenengo zailtasunaren aurrean proiektuak bertan behera ez uzteko. |
| - Ohiko zereginetan, eta beste batzuen laguntzaz, proposatutako xedea lortzeko egin beharreko ahalegina dosifikatzen saiatzen da. | - Ohiko zereginetan, eta beste batzuen laguntzaz, proposatutako xedea lortzeko egin beharreko ahalegina dosifikatzen du.  | - Ohiko zereginetan, proposatutako xedea lortzeko egin beharreko ahalegina dosifikatzen du.   |
| - Zerbaitek funtzionatzen ez duenean, beste irtenbide batzuk bilatzen ditu, heldu batek lagunduta.                                | - Zerbaitek funtzionatzen ez duenean, beste irtenbide batzuk bilatzen ditu.   | - Zerbaitek funtzionatzen ez duenean, beste irtenbide batzuk bilatu eta praktikan jartzen ditu.   |
| - Egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzen ditu, heldu batek lagunduta.  | - Egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzen ditu, taldekideen iritzia aintzat hartuta.  | - Ahal duen neurrian, egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzen ditu.   |
| - Zenbaitetan, erabaki bat hartzeko arrazoia zein izan den adierazten du.   | - Erabaki bat hartzeko arrazoia zein izan den adierazten du.  | - Erabaki bat hartzeko arrazoia zein izan den azaltzen du.  |
| - Oinarrizko egoera emozionalak (haserrea, beldurra, tristura, poza, inbidia) erabakiak hartzerakoan eragina duela onartzen du.   | - Oinarrizko egoera emozionalak (haserrea, beldurra, tristura, poza, inbidia) erabakiak hartzeko prozesuan eragina duela onartzen du, eta eragin hori erregulatzen saiatzen da. | - Erabakiak hartzerakoan, bere oinarrizko emozio batzuk hauteman eta kontrolatzen ditu.   |

|   |  |   |
|---|--|---|
| - Testuinguru oso familiarretan eta ezagunetan, pizgarrien eta sarien lorpena geroko uztea onartzen du batzuetan. | - Testuinguru ezagunetan, pizgarrien eta sarien lorpena geroko uztea onartzen du gehienetan. | - Testuinguru ezagunetan, pizgarrien eta sarien lorpena geroko uztea onartzen du. |
|---|--|---|

### 5. Proiektuaren balorazio pertsonala

- a. *Egindako jarduerak aztertzen ditu eta aurreikusitako xedeak noraino bete diren baloratzen du.*
- b. *Ondorio txikiak ateratzen ditu, eta horiek kontuan hartzen ditu etorkizuneko antzeko egoeretan.*

| <b>Hasierako maila</b>  | <b>Erdi maila</b>  | <b>Maila aurreratua</b>  |
|---|--|--|
| - Badaki proiektu edo lan pertsonal batek noiz lortu dituen emaitza onak.<br><br>- Heldu batek lagunduta, aitortzen du hasieran aurreikusitakoa betetzen ez duen proiektu bat hobetu daitekeen proiektu bat dela.<br><br>- Maizen egiten dituen akats batzuk onartzen ditu.<br><br>- Behin zeregina amaituta, prozesua baloratzen du eta hobetu daitezkeen alderdiak aurkitzen ditu, heldu batek lagunduta. | - Badaki proiektu edo lan pertsonal batek emaitza onak noiz lortu dituen.<br><br>- Aitortzen du hasieran aurreikusitakoa betetzen ez duen proiektu bat hobetu daitekeen proiektu bat dela.<br><br>- Maizen egiten dituen akatsak ezagutzen ditu, baina batzuk onartzea kostatzen zaio.<br><br>- Behin zeregina amaituta, prozesua baloratzen du eta hobetu behar diren alderdiak aurkitzen ditu, taldekideen edo gainerako ikaskideen ekarpenak baliatuta. | - Proiektu edo lan pertsonal baten emaitza onak baloratzen ditu.<br><br>- Aitortzen du hasieran aurreikusitakoa betetzen ez duen proiektu bat hobetu daitekeen proiektu bat dela aitortzen du, eta hobekuntza-jarduerak proposatzen ditu.<br><br>- Maizen egiten dituen akatsak onartzen ditu, eta horiek hobetzen saiatzen da.<br><br>- Ikasitakoa deskribatzen du, etorkizunean antzeko egoera batean aplikatzeko. |

### 3. dimentsioa: TALDEKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA

#### 6. Talde-lanean parte hartzea

- a. *Taldean adosten ditu helburu/xedeak eta egin beharreko talde-lanaren plangintza.*
- b. *Taldean lan egiten du, elkarrizketako eta besteen ideien eta iritzienganako errespetuzko giroan.*
- c. *Proiektuaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen du.*

| Hasierako maila  | Erdi maila  | Maila aurreratua   |
|--|---|--|
| - Helburu/xede komunak zehazten parte hartzen du.                          | - Taldekideei galderak egiten dizkie, helburu/xede komunak adosteko.  | - Taldekideei galderak egiten dizkie, helburu/xede komunak adosteko eta ideia berriak sortzeko.              |
| - Besteen plangintza-proposamenak onartzen ditu.                           | - Besteekin lankidetzan aritzen da taldeko lan baten plangintza eta lana bera egitean.                                | - Taldean egin beharreko lanaren plangintza modu errealistan zehazten du.                                    |
| - Noiz edo noiz, modu eraginkorrean antolatzeko moduak proposatzen ditu.   | - Askotan, modu eraginkorrean antolatzeko moduak proposatzen ditu.  | - Antolamendu eraginkorra izateko proposamenak egiten ditu.  |
| - Sormenezko konponbide egingarri bat ematen du.                           | - Irtenbide egingarriak ematen ditu.  | - Sormenezko irtenbide egingarriak ematen ditu eta horiek martxan jartzen laguntzen du.                      |
| - Besteek esaten dutena arretaz entzuteak duen garrantziaz ohartzen da.    | - Besteen iritziak eta proposamenak entzuten ditu, eta horiekin ados ez badago, bere jarrera defendatzen saiatzen da. | - Besteen iritziak eta proposamenak entzuten ditu, eta horiekin ados ez badago, bere jarrera defendatzen du. |
| - Besteen ekarpenei etengabe kritika negatiboak egitea ekiditen du.        | - Kritika eraikitzaileak entzuten ditu eta horiek onartzen hasten da.   | - Kritika eraikitzaileak behar bezala entzun eta onartzen ditu.  |
| - Besteen proposamen eta ekimen berritzaileetan parte hartzen du.          | - Besteen proposamen eta ekimen berritzaileetan parte hartzen du, eta horiek baloratzen saiatzen da.                  | - Besteen proposamen eta ekimen berritzaileetan parte hartzen du eta horiek positiboki baloratzen ditu.      |
| - Bere ideiak taldearekin partekatzen ditu, helburu komunak lortze aldera. | - Taldeari bere proposamena adierazten dio, helburu komunak lortze aldera.  | - Talde-lanean dihardu, xede komunak lortze aldera.  |

|   |  |   |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irtenbide posible bat baino gehiago kontuan hartzen ditu.</li> <li>- Egindako eta egiteko dagoen lanaren berri ematen die taldekideei, baina ematen dien informazioa ez da nahikoa.</li> <li>- Proiektua amaitutakoan, hobetu daitezkeen alderdiak daudela onartzen du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hainbat irtenbide posible aintzat hartzen ditu.</li> <li>- Egindako lanaren eta egiteko dagoenaren berri ematen die taldekideei.</li> <li>- Proiektu pertsonal bat amaitu ondoren, hobetu daitezkeen alderdiren bat aipatzen du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hainbat irtenbide posible kontuan hartzen ditu, eta bere ustez bideragarria dena proposatzen du.</li> <li>- Egindako lanaren eta egiteko dagoenaren berri ematen die taldekideei eta, behar izanez gero, berrantolatu egiten du.</li> <li>- Proiektu bat amaitu ondoren, hobetu daitezkeen zenbait alderdi aipatzen ditu.</li> </ul> |
|---|--|---|

### 7. Erantzukizunak eta lidergo-zereginak bere gain hartzea

- a. Bere eskubideak defendatzen ditu eta erantzukizunak bere gain hartzen ditu.
- b. Ikaskideenganako enpatia eta elkertasuna erakusten ditu.
- c. Bere emozio batzuk egoki adierazten ditu, taldekideen emozio batzuk hauteman eta horiek kontuan hartzeaz gain.
- d. Akordioak lortzeko bide gisa elkarrizketa erabiltzen du.
- e. Trebetasun pertsonalak erakusten ditu taldeko proiektuen buru izateko.

| Hasierako maila  | Erdi maila   | Maila aurreratua  |
|--|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Berari dagozkion zenbait betekizun bere gain hartzen ditu.</li> <li>- Berari dagokiona eskatzen du.</li> <li>- Behar dutenean, besteekin elkarlanean aritzen da sarritan.</li> <li>- Noiz edo noiz, emozio batzuk behar bezala azaleratzen ditu.</li> <li>- Bere ikaskideen zenbait emozio hautematen ditu, heldu batek lagunduta.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, dagozkion erantzukizunak bere gain hartzen ditu.</li> <li>- Bere jarrera defendatzen du.</li> <li>- Behar dutenean, elkarlanean aritzen da besteekin.</li> <li>- Oro har, emozio batzuk behar bezala azaleratzen ditu.</li> <li>- Bere ikaskideen zenbait emozio hautematen ditu.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dagozkion betekizunak bere gain hartzen ditu eta besteekin dituen konpromisoak betetzen ditu.</li> <li>- Bere iritzia defendatzen du, eta dagokiona errespetuz eskatzen du.</li> <li>- Behar dutenean, besteei laguntzen die eta elkarlanean aritzen da.</li> <li>- Emozio batzuk behar bezala azaleratzen ditu.</li> <li>- Bere ikaskideen zenbait emozio hautematen ditu, eta horiei behar bezala erantzuten saiatzen da.</li> </ul> |

|  |  |  |
|--|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbaitetan, bere iritzia ematen du, talde barruko gatazkak konpontzeko.</li> <li>- Taldeak egindako lanean konfiantza osoa du.</li> <li>- Batzuetan, modu argi eta ordenatuan hitz egiten du.</li> <li>- Lana ondo egiten bada, poztu egiten da.</li> <li>- Zenbaitetan, hizkuntza positiboa eta optimista erabiltzen du taldearen eta lanaren inguruan hitz egiteko.</li> <li>- Batzuetan, besteen laguntzaz baliatzen da bere proposamenak eta iritziak argudiatzeko.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeko gatazkak konpontzeko, elkarrizketa erabiltzen du.</li> <li>- Taldeko lanaren inguruan itxaropen positiboak ditu.</li> <li>- Oro har, modu argian eta segurtasunez hitz egiten du.</li> <li>- Ikaskideak zoriontzen ditu lana ondo egiten badute.</li> <li>- Askotan, hizkuntza positiboa eta optimista erabiltzen du taldearen eta lanaren inguruan hitz egiteko.</li> <li>- Besteen laguntzaz baliatzen da bere proposamenak eta iritziak argudiatzeko.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzen ditu gatazkak konpontzeko modu gisa.</li> <li>- Kontuan hartzen du hasitako lanak arrakasta izan dezan taldekide bakoitzak egindako ahalegina.</li> <li>- Modu argian eta segurtasunez hitz egiten du.</li> <li>- Ikaskideak zoriontzen eta motibatzen ditu lana ondo egiten dutenean.</li> <li>- Hizkuntza positiboa eta optimista erabiltzen du taldearen eta lanaren inguruan hitz egiteko.</li> <li>- Bere proposamenak eta iritziak argudiatzen ditu.</li> </ul> |
|--|--|--|

## 4.2. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailarako

**Hasierako mailan**, ikasleak bere buruarenganako konfiantza erakusten du iritziak ematerakoan eta erabakiak hartzerakoan, baina oso noizbehinka. Bere materialen eta objektu pertsonalen gaineko erantzukizuna hartu ohi du, baina, zenbaitetan, arreta galdu eta ez du dagokion lana egiten. Bere zenbait emozio eta horiek sorrarazten dituzten egoerak hautemateko gai da, eta, horrez gain, emoziook bere portaeran izan dezaketen eraginaren jakitun da. Eguneroko egoeretan nahikoa segurtasunez jarduten da, eta erabakiak hartu aurretik gogoeta egin ohi du, nahiz eta horretan heldu batek gidatu eta lagundu behar dion. Ikasteko estrategiak eta teknikak hobeto erabiliz gero, errendimendu handiagoa lortuko luke.

Edozein plangintza pertsonal egin behar duenean, pixkanaka bere ahalmenak eta mugak aintzat hartzen eta epe motzeko eta ertaineko xedeak aztertzen hasten da. Hainbat informazio-iturri eta baliabide erabiltzen ditu eguneroko egoerei aurre egiteko. Erabakiak bere kasa hartzeko gai den arren, besteen iritzia behar du. Galdetuz gero, erabaki bat hartzeko arrazoiak zeintzuk izan diren adierazten du. Egindako jarduerak eta lortutako emaitzak aztertzekeo gai da, bai eta egindako zenbait akats hautemateko ere.

Taldeko lanak zein proiektuak antolatzen laguntzen du, eta normalean, baina ez beti, irtenbide egingarriak ematen ditu eta dagozkion erantzukizunak hartzen ditu. Besteen ikuspegiak onartzen ditu, eta bere jarrera defendatzeko gai da horiekin bat ez datorrenean. Askotan, kritika eraikitzaileak onartzen ditu, eta behar bezala aurre egiten die. Oro har, modu argian eta ordenatuan hitz egiten du.

**Erdi mailan**, ikasleak hasierako mailan deskribatutako ahalmenak gaintzen ditu: eskolako objektuen eta materialen gaineko erantzukizuna hartzen du, eta, oro har, esleitutako zereginak betetzen ditu. Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko, normalean, hainbat informazio-iturri modu autonomoan baliatzen ditu. Bere portaeran emozioek eta sentimenduek garrantzia dutela onartzen du, eta zenbait estrategia baliatzen hasten da, beharrezkoa izanez gero, emozioak erregulatu ahal izateko. Horrez gain, oro har, bere emozioak egoki adierazteko gai da.

Erabakiak hartzerakoan, aukera ezberdinen abantailak eta desabantailak hautemateko gai da. Eskolako lanean, baliabideak eta eginkizunak antolatzen daki, eta hainbat estrategia baliatzen ditu bere burua motibatzekeo eta lehenengo zailtasunaren aurrean amore ez emateko. Gauzatutako ekintzak baloratzen ditu, eta egindako zenbait akats onartzen hasten da. Oro har, bere portaera erregulatzeko daki espero zirenak baino emaitza txarragoak lortzen dituenen. Helburuak lortu ahal izateko, pizgarriak eta sariak geroko uztea onartzen saiatzen da.

Talde-proiektuetan, besteen ideia eta proposamen berritzaileak baloratzen ditu, eta aldaketekiko jarrera positiboa izan ohi du. Talde-lanetan sortzen diren arazoak

konpontzeko irtenbideak bilatzen saiatzen da, eta elkarrizketa baliatzen du akordioak lortzeko eta gatazkak konpontzeko.

**Maila aurreratuan**, hasierako eta erdi mailan deskribatutako ahalmenez gain beste ahalmen batzuk dituzten ikasleak daude; alegia, egoera berrien aurrean beren buruarenganako konfiantza izan eta aurrera eramaten dituzten ekintzetan saiatuak direnak, bidean aurkitzen dituzten zailtasunak gorabehera. Sormenezko proposamenak eta ekoizpen berritzaileak egiten ditu. Horrez gain, bere burua fisikoki eta emozionalki zaintzeko baliabideak eta estrategiak ditu.

Egoera arazotsuei aurre egiterakoan, hainbat aukera balioztatzen ditu, eta zailtasunak eta mugak gainditzeko modua aurreikusten du. Bere erabakiek eragindako arriskuak eta ondorioak bere gain hartzen ditu, besteei errua egotzi gabe. Helburuak lortzeko egin behar den ahalegina dosifikatzen daki, eta sarien lorpena geroko uzten du, bere helburuak lortze aldera. Maila pertsonalean, etengabe hobetzeko jarrera erakusten du, eta bere inguruko pertsonekin edo etxekeekin duen harremana hobetzeko proposamenak egiten ditu. Ikasteko teknikak eta estrategiak lagunduta, bere ahalmenei etekin handiena ateratzen die.

Talde-lanetan, bere ikaskideen ekimenetan laguntzeko prest dago, eta proposamenak egiterakoan, besteen ekarpenak aintzat hartu ohi ditu. Behar dutenean, enpatia adierazten du, besteei laguntzen die eta elkarlanean aritzen da. Oro har, segurtasunez eta konbentzimenduz hitz egiten du. Bere ikuspegia defendatzen eta argudiatzen du, baina, aldi berean, besteena errespetatzen du. Kritika eraikitzaileak onartzen ditu, eta normalean modu egokian egiten die aurre. Ez du taldearen xedea alde batera uzten, eta egindako lana berrikusten du, hobekuntzak proposatze aldera. Aldaketak onartzeari dagokionez, malgua da. Era berean, helburu komunak lortzeko taldekide bakoitzak egiten duen ahalegina baloratzen du, eta taldearen motibazioa handia izan dadin saiatzen da. Elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzen ditu gatazkak prebenitzeko tresna gisa, eta horiek sortzen direnean, irtenbideak zuhurtziaz proposatzen saiatzen da.



**1. dimentsioa: PERTSONA AUTONOMOA IZATEKO JARRERAK ETA BALIOAK HAUTEMAN ETA GARATZEA**

**1. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko eta proiektuei ekiteko beharrezkoak diren jarrerak eta balioak hautematea**

- a. Bere ahalmenak eta mugak ezagutzen ditu, bai zereginei heldzerakoan, bai erantzukizuna bere gain hartzerakoan.
- b. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko autoestimua duen garrantzia onartzen du.
- c. Helburu bat lortzeko jarraitutasunak duen garrantzia onartzen du.
- d. Erantzukizunak hartzeak eguneroko bizitzan duen garrantzia onartzen du.
- e. Emozioek eta sentimenduek bere portaeran duten garrantzia onartzen du.

| Hasierako maila  | Erdi maila   | Maila aurreratua   |
|--|--|--|
| - Bere ahalmenak eta mugak ezagutu eta onartzen ditu.  | - Bere ahalmenak eta mugak ezagutu eta onartzen ditu, eta, sarritan, erabakiak hartzerakoan gogoan izaten ditu.                                | - Bere ahalmenak eta mugak onartzen ditu, eta, sarritan, erabakiak hartzerakoan gogoan izaten ditu.                                  |
| - Behar duenean, laguntza eskatzen die beste pertsona batzuei.   | - Behar duenean, laguntza eskatzen du.   | - Laguntza eskatzen du arazoa bere kasa konpondu ezin duenean.   |
| - Oro har, modu errealistan hitz egiten du bere buruaz.  | - Oro har, modu positiboan hitz egiten du bere buruaz.   | - Modu positiboan hitz egiten du beti bere buruaz.   |
| - Noiz edo noiz, bere buruarenganako konfiantza erakusten du bere iritzia ematerakoan, bai eta erabakiak hartzerakoan ere.                         | - Askotan, bere buruarenganako konfiantza erakusten du bere iritzia ematerakoan eta erabakiak hartzerakoan.                                    | - Bere buruan konfiantza erakusten du bere iritzia ematerakoan, bai eta erabakiak hartzerakoan ere.                                  |
| - Gustuko dituen eginkizunetan bakarrik da saiatua.  | - Noiz edo noiz, bere helburuak lortzeko jarraitutasunez lan egiten du.  | - Bere helburuak lortzeko jarraitutasunez lan egiten du, zailtasunak gorabehera.   |
| - Sarritan, bere materialen, objektu pertsonalen eta esleitutako zereginen gaineko ardura hartzen du.  | - Oro har, bere materialen, objektu pertsonalen eta esleitutako zereginen gaineko ardura hartzen du.   | - Bere materialen, objektu pertsonalen eta esleitutako zereginen gaineko ardura hartzen du.  |
| - Oinarrizko emozioetako batzuk eta horiek eragiten dituzten egoerak identifikatzen ditu, bai eta emoziook norberaren portaeran duten eragina ere. | - Sarritan, oinarrizko emozioak eta horiek eragiten dituzten egoerak hautematen ditu, bai eta emoziook norberaren portaeran duten eragina ere. | - Oinarrizko emozioak eta horiek eragiten dituzten egoerak hautematen ditu, bai eta emoziook norberaren portaeran duten eragina ere. |

|   |   |   |
|---|---|---|
| - Zenbaitetan, strategiaren bat erabiltzen du bere emozioak moldatzeko. | - Askotan, zenbait estrategia erabiltzen ditu bere emozioak moldatzeko. | - Hainbat estrategia baliatzen ditu bere emozioak moldatzeko. |
|---|---|---|

**2. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko eta proiektuei ekiteko beharrezkoak diren jarrerak eta balioak garatzea**

- a. *Arazoei eta arrisku posibleei aurre egiten die.*
- b. *Egoki eta irizpide propioa baliatuta aukeratzen du.*
- c. *Aldaketei dagokienez, malgua da.*
- d. *Bere ahalmenekiko konfiantza du.*
- e. *Frustrazioarekiko tolerantzia erakusten du.*
- f. *Ekintzailea da eta hobetzeko grina du.*

| <b>Hasierako maila</b>  | <b>Erdi maila</b>   | <b>Maila aurreratua</b>   |
|---|---|---|
| - Topatutako arazoei konponbidea ematen saiatzen da.  | - Topatutako arazoei konponbidea ematen saiatzen da.  | - Arazoak konpontzeko irtenbideak bilatzen ditu.  |
| - Zenbait egoera arazotsuri aurre egiterakoan, arriskuak hauteman eta hartzen ditu noiz edo noiz. | - Zenbait egoera arazotsuri aurre egiterakoan, arriskuak hauteman, balioetsi eta hartu egiten ditu. | - Egoera arazotsuei aurre egiterakoan, arriskuak hauteman, balioetsi eta hartu egiten ditu, aurreko esperientziak kontuan hartuta.    |
| - Zenbaitetan, egoki eta irizpide propioa baliatuta aukeratzen du.                                | - Oro har, egoki aukeratzen du, eta batzuetan, irizpide propioa baliatzen du.                       | - Egoki eta irizpide propioa baliatuta aukeratzen du.   |
| - Erabaki bat hartzerakoan gogoeta egitea garrantzitsua dela onartzen du.                         | - Erabaki bat hartu aurretik, aukera guztien abantailak eta desabantailak kontuan hartzen ditu.     | - Erabaki bat hartu aurretik, aukera ezberdinei buruzko hausnarketa egiten du eta horiek baloratzen ditu, irizpide propioa baliatuta. |
| - Heldu batek lagunduta, aldaketa-proposamenak entzun, onartu eta bere egiten ditu.               | - Zenbait aldaketa-proposamen entzun, balioetsi eta onartzen ditu.                                  | - Aldaketa-proposamenak entzun, balioetsi eta onartzen ditu, bai eta bere egin ere.   |
| - Segurtasun, higie eta osasun pertsonalari buruzko gizarte-arauak onartu eta betetzen ditu.      | - Bere burua fisikoki eta emozionalki zaintzeko baliabide eta estrategia batzuk ditu.               | - Bere burua fisikoki eta emozionalki zaintzeko baliabideak eta estrategiak ditu.   |

|  |  |   |
|--|--|---|
| <p>- Sarritan, segurtasunez eta konfiantzaz aritzen da eguneroko egoeretan.</p> <p>- Bere portaera kontrolatzen du espero zirenak baino emaitza txarragoak lortzen dituenean, baina batzuetan, heldu batek laguntzea eta/edo gainbegiratzea beharrezkoa da.</p> <p>- Behin edo behin, sormenezko proposamenak egiten ditu.</p> <p>- Zenbaitetan, bere ingurunea hobetzeko proposamenak egiten ditu</p> <p>- Noiz edo noiz, hobetzeko planak proposatzeko gai da, beste batek lagunduta.</p> <p>- Bere ahalmenei etekin nahiko txikia ateratzen die, ikasteko estrategiak eta teknikak baliatuta.</p> | <p>- Sarritan, segurtasunez eta konfiantzaz aritzen da hainbat egoeratan.</p> <p>- Espero zirenak baino emaitza txarragoak lortzen dituenean, bere portaera kontrolatzen du.</p> <p>- Sarritan, sormenezko proposamenak eta ekoizpen berritzaileak egiten ditu.</p> <p>- Askotan, bere ingurunea hobetzeko proposamenak egiten ditu</p> <p>- Ekimena du, eta, noiz edo noiz, norberaren hobekuntzarako planak proposatzen ditu.</p> <p>- Bere ahalmenei etekin ona ateratzen die, ikasteko estrategiak eta teknikak baliatuta.</p> | <p>- Segurtasunez eta konfiantzaz aritzen da hainbat egoeratan.</p> <p>- Espero zirenak baino emaitza txarragoak lortzen dituenean, bere portaera kontrolatzen eta autoerregulatzen du; noiz edo noiz, egoerari buruzko gogoeta egiten du.</p> <p>- Sormenezko proposamenak eta ekoizpen berritzaileak egiten ditu.</p> <p>- Bere ingurunea hobetzeko proposamenak egiten ditu, eta horiek martxan jartzeko konpromisoa hartzen du.</p> <p>- Ekimena du eta norberaren hobekuntzarako planak proposatzen ditu.</p> <p>- Bere ahalmenei ahalik eta etekin handiena ateratzen die, ikasteko estrategiak eta teknikak baliatuta.</p> |
|--|--|---|

**2. dimentsioa: PROIEKTU PERTSONALAK PLANIFIKATZEA ETA MARTXAN JARTZEA**

**3. Proiektu pertsonalen eta erronka berrien plangintza egitea**

- a. *Eguneroko egoera arazotsuak konpontzeko irtenbideak sortzen eta proposatzen ditu.*
- b. *Etorkizuneko ikuspegia du, aukerak aztertzen ditu eta arriskuak kalkulatzen ditu.*
- c. *Proiektuak bere gaitasunen arabera zehazten ditu.*
- d. *Proiektu bat aurrera eramateko eman behar diren pausoak planifikatzen ditu.*

| Hasierako maila  | Erdi maila   | Maila aurreratua   |
|--|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera arazotsu bat ulertzeko, hainbat irtenbide adierazi eta egiaztatzen ditu.</li> <li>- Proposamen zehatz baten abantaila eta desabantaila batzuk aipatzen ditu.</li> <li>- Arazo bat konpontzeko aukera berriak bilatzen ditu, eta horiek aztertu ondoren, bideragarriena aukeratzeko saiatzen da.</li> <li>- Sarritan, bere ahalmenak eta mugak kontuan hartzen ditu ohiko zereginak planifikatzerakoan.</li> <li>- Eguneroko egoeretan, lan pertsonala eskatzen duten baliabide eta zeregin batzuk antolatzen ditu.</li> <li>- Epe motzean eta ertainean lor daitezkeen helburuak finkatzen ditu, beste batzuen laguntzaz.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera arazotsu batera hurbiltzeko, hainbat proposamen aztertzen ditu.</li> <li>- Eguneroko egoera bat konpontzeko aukeren zenbait abantaila eta desabantaila zerrendatzen ditu.</li> <li>- Zenbait aukera aztertzen ditu, arazo posibleak baloratuta, eta bideragarriena aukeratzeko du.</li> <li>- Bere ahalmenak eta mugak kontuan hartzen ditu plangintza egiteko.</li> <li>- Eguneroko egoeretan lan pertsonala eskatzen duten baliabideak eta zereginak antolatzen ditu.</li> <li>- Epe motzean eta ertainean lor daitezkeen helburuak finkatzen ditu.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hainbat proposamen aztertzen ditu egoera arazotsu bat konpontzeko.</li> <li>- Egoera arazotsu bat konpontzeko aukeren abantailak eta desabantailak zerrendatzen ditu.</li> <li>- Hainbat aukeren artean, horiek ebaluatu eta egokiena aukeratzeko gai da.</li> <li>- Plangintza egiterakoan, bere mugak gainditzeko irtenbide posibleak aurreikusten ditu.</li> <li>- Lan pertsonala eskatzen duten baliabideak eta zereginak antolatzen ditu.</li> <li>- Epe motzean eta ertainean lor daitezkeen helburuak finkatzen ditu, eta egunetik egunera hobeto jarduten saiatzen da.</li> </ul> |

#### 4. Proiektuak garatzea eta erabakiak hartzea

- a. Lanerako motibazioa eta gogo handia mantentzen ditu, eta ahalegin pertsonala erregulatzen du.
- b. Ordezko aukerak bilatzen ditu, eta proposamena egin eta praktikan jartzen du.
- c. Irizpide propioa baliatuta erabakiak hartzen ditu.
- d. Egoeran egoerako emozioetako batzuk hauteman eta kontrolatzen ditu.
- e. Berehalako asebetetzea atzeratzen du, helburu bat lortze aldera.

| Hasierako maila   | Erdiko maila   | Maila aurreratua  |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere iritzia kontuan hartzen diren eta bere partaidetza baloratzen den zereginen inguruko interesa agertzen du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aktiboki ikasi eta parte hartu dezakeen zereginen inguruko interesa agertzen du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastea gustuko duela adierazten du, eta ikasteko prozesuan saiatua da.</li> </ul> |

|   |  |   |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Motibazioa dakarkioten egoerak hautematen ditu, eta, batzuetan, egoera horiek lehenengo zailtasunaren aurrean proiektuak bertan behera ez uzteko erabiltzen ditu.</li> <li>- Ohiko zereginetan, proposatutako xedea lortzeko egin beharreko ahalegina dosifikatzen du.</li> <li>- Erabaki propioak hartzen ditu, besteen iritzia kontuan hartuta.</li> <li>- Bere proiektua aztertzen du, eta, zenbaitetan, besteek lagunduta aldaketak egiten ditu.</li> <li>- Emandako ildoak jarraituz, informazio-iturriak baliatzen ditu modu autonomoan, egoera baten aurrean nola jardun behar den jakiteko.</li> <li>- Erabaki propioak hartzen ditu eta, beste batek lagunduta, ondorio posibleak baloratzen ditu.</li> <li>- Erabaki bat hartzeko arrazoiak zeintzuk izan diren identifikatzen du.</li> <li>- Eguneroko egoeretan, hartutako erabakien ondoriozko arriskuak bere gain hartzen ditu.</li> <li>- Erabaki pertsonalak hartzerakoan, bere zenbait emozio negatibo onartzen ditu (haserrea, amorrua, inbidia...).</li> <li>- Zenbaitetan, pizgarrien eta sarien lorpena atzeratzen du, bere helburuak lortze aldera.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Motibazioa dakarkioten egoerak hautematen ditu, eta egoera horiek lehenengo zailtasunaren aurrean proiektuak ez uzteko erabiltzen ditu.</li> <li>- Zeregin gehienetan, proposatutako xedea lortzeko egin beharreko ahalegina dosifikatzen du.</li> <li>- Oro har, egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzen ditu, eta, zenbaitetan, irizpide propioa baliatuta egiten du hori.</li> <li>- Beharrezkoa izanez gero, bere proiektua aztertzen eta berrantolatzen du besteen iritzia aintzat hartuta.</li> <li>- Oro har, eta modu autonomoan, hainbat informazio-iturri eta baliabide erabiltzen ditu eguneroko bizitzarekin lotutako gaietarako.</li> <li>- Erabaki propioak hartzen ditu, ondorio posibleak aintzat hartuta.</li> <li>- Erabaki bat hartzeko arrazoiak zeintzuk izan diren azaltzen du.</li> <li>- Egoera gehienetan, hartutako erabakien ondoriozko arriskuak bere gain hartzen ditu.</li> <li>- Erabaki pertsonalak hartzerakoan, bere zenbait emozio negatibo onartzen ditu (haserrea, amorrua, inbidia...), eta erregulatzen saiatzen da.</li> <li>- Oro har, pizgarrien eta sarien lorpena atzeratzen du, bere helburuak lortze aldera.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Motibazioa dakarkioten egoerak hautematen ditu, eta, zailtasunak izan arren, proiektuak ez uzteko erabiltzen ditu.</li> <li>- Proposatutako xedea lortzeko egin beharreko ahalegina dosifikatzen du.</li> <li>- Egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzen ditu, irizpide propioa baliatuta.</li> <li>- Egokitzat jotzen dituen aldaketak egiten ditu eta, horien arabera, proiektua berriz hasten eta berrantolatzen du.</li> <li>- Informazio-iturriak eta baliabideak erabiltzen ditu eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko eta egoera konplexuei aurre egiteko.</li> <li>- Erabaki propioak hartzen ditu, aukera ezberdinak eta ondorio posibleak aztertuta.</li> <li>- Galdetzen zaionean, hartutako erabakien inguruko argudioak ematen ditu.</li> <li>- Hartutako erabakien ondoriozko arriskuak bere gain hartzen ditu.</li> <li>- Erabaki pertsonalak hartzerakoan, bere zenbait emozio negatibo kontrolatzen ditu (haserrea, amorrua, inbidia...).</li> <li>- Pizgarrien eta sarien lorpena atzeratzen du, bere helburuak lortze aldera.</li> </ul> |
|---|--|---|

## 5. Proiektuaren balorazio pertsonala

- a. Egindako ekintzak aztertzen ditu, hala nola aurreikusitako xedeak noraino bete diren eta zein alderdi hobetu daitezkeen.
- b. Ondorio txikiak ateratzen ditu, antzeko egoeretan kontuan hartzen ditu eta akatsetatik ikasten du.

| Hasierako maila  | Erdi maila  | Maila aurreratua   |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste batek lagunduta, egindako ekintzak eta lortutako emaitzak aztertzen ditu.</li> <li>- Hazkunde pertsonalaren estrategia gisa, hobetzeko aukera berriren bat aurkezten du, heldu batek gidatuta.</li> <li>- Beste batek lagunduta, lan-plana garatzean ondo egindakoak eta gaizki egindakoak hautematen ditu, eta zenbait hobekuntza proposatzen ditu, beste egoera batzuetan baliaitzeko.</li> <li>- Heldu baten laguntza behar du bere akatsen ondorioak bere gain hartzeko.</li> <li>- Ikasitakoa azaltzen du eta bere bizitzako egoera pertsonaletan aplikatzeko gai da.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, modu errealistan eta jarraituan baloratzen ditu egindako ekintzak eta lortutako emaitzak.</li> <li>- Hazkunde pertsonalaren estrategia gisa, hobetzeko zenbait aukera berri aurkitzen ditu, heldu batek gidatuta.</li> <li>- Lan-plan bat garatzean ondo egindakoak eta gaizki egindakoak hautematen ditu, eta zenbait hobekuntza proposatzen ditu, beste egoera batzuetan baliaitzeko.</li> <li>- Beste baten laguntzaz, bere akatsen zenbait ondorio onartzen ditu.</li> <li>- Ikasitakoa azaltzen du eta bere bizitzako egoera pertsonaletan aplikatzen daki.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Modu errealistan eta jarraituan baloratzen ditu egindako ekintzak eta lortutako emaitzak.</li> <li>- Hazkunde pertsonalaren estrategia gisa, hobetzeko aukerak aurkitu eta aipatzen ditu.</li> <li>- Lan-plan bat garatzean ondo egindakoak eta gaizki egindakoak identifikatzen ditu eta akatsei buruzko gogoeta egiten du; era berean, beste egoera batzuetan erabiltzeko zenbait hobekuntza proposatzen ditu.</li> <li>- Beste baten laguntzaz, bere akatsen ondorioak onartzen ditu, errua besteei egotzi gabe.</li> <li>- Ikasteko estrategiak bere bizitzako beste egoera pertsonal batzuetara zabaltzen ditu.</li> </ul> |

### 3. dimentsioa: TALDEKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA

#### 6. Lankidetzaren talde-lanetan

- a. *Taldean adosten ditu helburu/xedeak eta egin beharreko talde-lanaren plangintza.*
- b. *Taldean lan egiten du, besteen ideia eta iritzienganako errespetuzko giroan.*
- c. *Proiektuaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen du.*

| Hasierako maila   | Erdi maila  | Maila aurreratua  |
|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeak proposatutako lan-xedeak onartzen ditu.</li> <li>- Denbora, baliabideak, arduradunak eta zereginak modu eraginkorrean antolatzen laguntzen du.</li> <li>- Sormenezko konponbide egingarri bat ematen du.</li> <li>- Besteen argudioak entzuten ditu, eta horiekin ados ez dagoenean, bere jarrera defendatzen du.</li> <li>- Besteen ideiak eta proposamenak kontuan hartzen ditu.</li> <li>- Kritika eraikitzaileak onartzeko zailtasunak ditu.</li> <li>- Sarritan, aldaketarekiko jarrera positiboa du.</li> <li>- Hobetu daitezkeen lanaren zenbait alderdi hautematen ditu eta horien berri ematen du.</li> <li>- Talde-lanaren berrikuspenean parte hartzen du, eta bere iritzia ematen du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldean egin beharreko lanaren xedeak adosten ditu.</li> <li>- Denbora, baliabideak, arduradunak eta zereginak batera antolatzen ditu.</li> <li>- Sormenezko zenbait irtenbide egingarri ematen ditu.</li> <li>- Besteen argudioak entzuten eta errespetatzen ditu, eta horiekin ados ez dagoenean, bere jarrera defendatzen du.</li> <li>- Besteen ideiak eta proposamenak baloratzen ditu.</li> <li>- Kritika eraikitzaileak onartzen ditu, eta, noiz edo noiz, behar bezala aurre egiten die.</li> <li>- Aldaketarekiko jarrera positiboa du.</li> <li>- Hobetu daitezkeen lanaren alderdi batzuei buruzko proposamenak egiten ditu.</li> <li>- Lanaren bilakaera taldekideekin aztertzen du, eta sortzen diren arazoak konpontzen laguntzen du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldearen xedeak eta helburuak proposatzen ditu.</li> <li>- Denbora, baliabideak, arduradunak eta zereginak batera eta modu eraginkorrean antolatzen ditu.</li> <li>- Irtenbide egingarriak ematen ditu.</li> <li>- Bere ikuspegia defendatu eta argudiatzen du, eta besteen arazoak eta argudioak errespetatzen ditu.</li> <li>- Proposamenak egiten ditu, besteen iritzia eta proposamenak kontuan hartuta.</li> <li>- Kritika eraikitzaileak onartu eta bere gain hartzen ditu, eta horiei behar bezala aurre egiten die.</li> <li>- Aldaketak onartzeari eta ikuspegiak zabaltzeari dagokienez, malgua da.</li> <li>- Jarraitutako prozesua azaltzen du, ondorioak ateratzen ditu eta hobekuntzak proposatzen ditu.</li> <li>- Egindako lanaren inguruko gogoeta egiten du gainerako taldekideekin batera, eta hautemandako zailtasunei irtenbide bat ematen die.</li> </ul> |

|   |   |  |
|---|---|--|
| - Proiektu bat amaitu ondoren, hobetu daitezkeen zenbait alderdi aipatzen ditu. | - Proiektua amaitutakoan, hura baloratzen du, eta hobetzeko proposamenen bat egiten du etorkizunera begira. | - Proiektua amaitutakoan, hura aztertzen du, eta hobetzeko proposamenak egiten ditu etorkizunera begira. |
|---|---|--|

## 7. Erantzukizunak eta lidergo-zereginak bere gain hartzea

- a. Bere eskubideak defendatzen ditu eta erantzukizunak bere gain hartzen ditu.
- b. Ikaskideenganako enpatia eta elkartasuna erakusten ditu.
- c. Emozio batzuk behar bezala adierazten ditu.
- d. Taldekideen emozio batzuk identifikatzen ditu eta horiek kontuan hartzen ditu.
- e. Akordioak lortzeko bide gisa elkarrizketa, negoziazioa eta bitartekotza erabiltzen ditu.
- f. Trebetasun pertsonalak erakusten ditu taldeko proiektuen buru izateko.

| Hasierako maila   | Erdi maila  | Maila aurreratua   |
|---|---|--|
| - Bere eskubideak errespetuz defendatzen ditu eta horiei eusten die, baina, zenbaitetan, beharrezkoa da heldu batek laguntzea eta gainbegiratzea. | - Bere eskubideak defendatzen ditu eta horiei eusten die errespetuz.                                      | - Bere eskubideak defendatzen ditu eta horiei eusten die errespetuz.   |
| - Askotan, bere erantzukizunen gaineko ardura hartzen du eta besteekin dituen konpromisoak betetzen ditu.   | - Oro har, bere erantzukizunen gaineko ardura hartzen du eta besteekin dituen konpromisoak betetzen ditu. | - Bere erantzukizunen gaineko ardura hartzen du eta besteekin dituen konpromisoak eraginkortasunez betetzen ditu.    |
| - Zenbaitetan, gizarteko komunikazio-arauak erabiltzen ditu elkarreraginean.  | - Askotan, gizarteko komunikazio-arauak erabiltzen ditu elkarreraginean.                                  | - Gizarteko komunikazio-arauak erabiltzen ditu elkarreraginean.  |
| - Behar dutenean, besteei laguntzen die eta elkarlanean aritzen da.   | - Behar dutenean, besteei laguntzen die eta elkarlanean aritzen da.                                       | - Behar dutenean enpatia adierazi eta laguntza ematen die besteei.   |
| - Zenbait emozio eta sentimendu behar bezala adierazten ditu.   | - Emozio eta sentimendu batzuk asertibotasunez adierazten ditu.   | - Emozioak eta zenbait sentimendu asertibotasunez adierazten ditu.   |
| - Bere ikaskideen zenbait emozio hautematen ditu, eta horiei behar bezala erantzuten saiatzen da.   | - Besteen emozioak ulertzen ditu eta horiei behar bezala erantzuten saiatzen da.                          | - Besteen gogo-aldartea ulertzen du, haien lekuan jartzen da eta haien sentimenduekiko sentikortasuna adierazten du. |



|  |   |  |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arazo baten aurrean, hura konpontzeko proposamenak egiten ditu eta bere ikaskideenak entzuten ditu, hainbat ikuspegi hautemanez.</li> <li>- Zenbait arau/akordio proposatzen ditu eta, ahal duen neurrian, lan-plangintzaren gaineko ardurak hartzen ditu.</li> <li>- Taldearen motibazioa mantentzeko ahalegina egiten du.</li> <li>- Kontuan hartzen du hasitako lanak arrakasta izan dezan taldekide bakoitzak egindako ahalegina.</li> <li>- Arazoei aurre egiten die eta horiek konpontzeko irtenbideren bat proposatzen saiatzen da.</li> <li>- Noiz edo noiz, modu argian, errazean eta ordenatuan hitz egiten du, nahiz eta, batzuetan, beste batek gidatu behar duen.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketa baliatzen du, akordioak lortzen ditu besteak kontuan hartuta, eta gatazkak konpontzeko irtenbideak ematen ditu.</li> <li>- Arauak/akordioak proposatu eta lan-plangintzaren gaineko ardurak hartzen ditu.</li> <li>- Taldearen motibazioa mantentzen du.</li> <li>- Hasitako lanak arrakasta izan dezan taldekide bakoitzak egin duen ahalegina balioesten du.</li> <li>- Arazoei aurre egiten die eta horiek konpontzeko irtenbideren bat proposatzen du.</li> <li>- Modu ordenatuan eta segurtasunez hitz egiten du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gatazkak prebenitzeko modu gisa negoziazioa eta akordioak baloratzen ditu eta, gatazkak sortzen direnean, irtenbideak zuhurtziaz ematen ditu.</li> <li>- Bat-etortzeak bilatzen ditu, jarrerak batzen ditu eta, beharrezkoa denean, zereginaren lidergoa hartzen du konponbideak lortze aldera.</li> <li>- Taldekideak adoretzen ditu, eta haien motibazioa mantentzen du.</li> <li>- Hasitako lanak arrakasta izan dezan taldekide bakoitzak egin duen lana balioetsi eta sustatzen du, anbizio pertsonal zintzoa izanda.</li> <li>- Arazoei aurre egiten die, eta horiek konpontzeko sormenezko aukerak bilatzeko konpromisoa hartzen du.</li> <li>- Segurtasunez eta konbentzimenduz hitz egiten du.</li> <li>- Zenbait proiekturen aurrean, erronken eta aukeren ikuspegi estrategikoa du.</li> </ul> |
|--|---|--|